


1995ko otsailak 10

264. zenb.

PRESS



ARRASATE

UGARTE BENGOA MITA (UDALETXEA)
HERRIKO PLAZA
ARRASATE
0 9




RIPen zuzeneko diska

“Punk not dead”

BEDEREN 1^{lek}

Aurkezten du:



Ramon Agirrereren

errenta

LEKUA:

Amaia antzokian

EGUNA:

Otsailak 17, ostirala

ORDUA:

Gaueko 10.30etan



ARRASATEKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gerra Zikina

Ba ote dago gerra garbirik? Giza kontzientzia ez da egon inoiz eta ez dago gaur egun ere erabat heldurik. Osatzen eta aberasten doa urteen poderioz eta gizakien humanizazioz. Gizakia, bere historia eta lorpenak, kontzientzia barne, Ebo-luzioa eta Prozesoa dira.

Bere garaietan, gizartean indarra eta boterea onartua eta justifikatua zegoenean, bidezko eta normala zeritzoten gizakiek eta, tamalez, baita Elizak berak ere indarkeriari, torturari, heriotz-eratzeko estrategiko edo politikoei, mehatsuz herria beldurtzeari eta ixilarazteari, eta abar luze bati. Baina gure gaurko Euskal Herrian, giza eta herrien eskubideekin jabetu eta defendatzen ditugun garai hauetan, Estatuari berari heriotzazigorra ezartzea ukatzen diogunean, intsumisio garaietan, ez da ulertzen, eskizofrenia baten barruan ez bada, jokabide horiek justifikatzea. GAL gerra zikina zen, eta ardurak eta erantzunkizunak argitu eta exigitu behar ditugu. Baina, Euskal Herrian gehiengo batek, (bakoitzaren kontzientzia, mementuz behintzat, alde batera utziaz ere), geure helburuak lortzeko elkarrizketa eta bide politikoa - luzea eta zaila - prozedura eskatzen dituenean, zer justifikazio du ETAK? Beldur naiz, urte batzuk barru, gaur egun Espainian GALekin gertatzen ari dena ez ote den gertatuko Euskal Herrian eta Euskadin ETaren ardura-dun nagusi, eragile eta bultzatzaileekin. Gaur, gure artean, euskaldunon artean, saldu nahi dena: Gal = gerra zikina - ETA = gerra garbia edo justifikatua, salgai eta onargai izango ote?

Bestalde, gerra ziki-



na da baita, *Jose Maria Setien* jaunari, gezurrez, manipulazioz eta kalumniez, egiten ari zaion "acoso y derribo" a, aldizkarietan, irratietan eta telebistetan erein eta zabaltzen ari diren pozoiz galgarriak. Gerra zikina, bere ezabatzea bilatzean, euskera, ikastolak, Euskal Herria ezabatu nahian.

Gogora datozkit Ebanjelioaren bi aipu: "Ez izan haien beldurrik. Ez baita ezer ezkuturik, agertuko ez denik; ez ezer gorde-rik, jakingo ez denik. Gaueko ilunbetan esaten dizuedana, esazue eguneko argitan; eta belarrira entzuten duzuen, hots egin etxe gainetik. Ez izan beldurrik gorputza hiltzen dutenei, baina arima ezin hil dezakete-nei". (Mt. 10, 26-28)

"Gizonen aurrean nire alde ateratzen denak, bere alde izango nau Ni ere, zeruetan dagoen nire Aitaren aurrean" (Mt. 10, 32)

Ez dute, ez, Setien jauna isilduko, ez gaituzte, ez, isilaraziko. Donostiako Bikario Orokorak lehenbizi, Bilbokoak ondoren, Euskal Herriko Gotzaiak, Gipuzkoako Apaiz Biltzarrak, Estatuako Gotzai Biltzarrak gero, eta bihotz-begi garbiko hainbat eta hainbat idazle, irradi gizon eta abar luze bat, publikoki salatu eta arbuiatu dugu *Jose Maria Setien* jaunari egin zaion iraina eta injustizia; eta berarekin bat gatozela aitortu.

"Zer ikustera atera zineten basamortura? Haizeak astintzen duen kainabera?... Zertara atera zineten, bada? Profetaren bat ikustera? Baietz diotsuet... Horrentzat baitago idatzirik: Begira, hori bidaltzen dut Nik nire mezularia zure aurretik, zuri bidea prestatzera." (Jesusen hitzak Juan Bataiatzaileari buruz, Mt. 11,7.9-10)

"SAGARRAGA"

**GATZAGAn,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetxea**




**Memesa
79 42 22**



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40


Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Maider Egües. **Hizkuntz arduraduna:** Arantza Ozaeta. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Ihaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karme Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Gokiolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba Vallés.



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1ª Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

IR TABERNA TI

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11



Alkoholarekin arazoak daukazazu?

Agian,
"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

Kooperatibak, zergatik tratatzen dituzue horrela bazkide-semeak?

Orain arte lan-kontratu positiboak egiten ziren gure ustez, baina aspalditxoan kontratazioa gero eta txarragoa da. Hori dela-eta, gure egoera jendaurrean salatzeke beharra dugu, zeren itxura denez, hau ez zaio inori ere ezertxo axola. Non dago bazkideen izpiritu kooperatibista?

Egun gutxiko edo egun bakarrek kontratuak egiten dizkigute, kontratazio enpresa pribatuen bidez (EKO horietako bat da). Kontratu hauek ez digute soldata aldetik kalterik egiten, baina gu arduratuta gaudela Seguritate Sozialeko kotizazioetaz eta gerora eskura ditzakegun langabezi prestazioetaz.

Bestetik, kooperatibek kontratazio enpresa pribatuak erabiltzea ere kezka garria dela iruditzen zaigu. Zergatik ez dute INEMera jotzen? Langabezia gaztedia osoa astintzen duen arazoa da eta ez soilik sozio-semeena.

Kooperatibetako langile ebentualok kontratu mota hauekin berehala bukatzea eskatzen dugu.

Ez ditugu hondarrak gura!

Kontratu duinen alde!!

Eta zuk bazkide, ez duzu ezer ere esateko?

LANGILE EBENTUALAK

Santa Ageda Jaiak

Atzo eman genien bukaera Gesalibarko Santa Ageda jaiak. Bati baino gehiagori entzun diot aspaldiko urteetako onenak izan direla, eta neu ere bat nator hori diotenekin. Beharbada denak ez dira uste bereko izango, bai-

na badago faktore berri bat, itxaropena dakarrena: gazteak mugitzen hasi dira.

Barikuko bertso-afariak urteroko arrakasta izan zuen. Lizaso eta Murua primeran portatu ziren, jendea gustora itxiz. Programako gainontzekoak ere ondo atera direlakoan nago. Esaterako, bolalekua ipintzea ideia ona izan da, jende larregi hurbildu ez bazen ere. Mus txapelketan ez zen bikote asko aritu, baina mantendu beharke litzateke, akaso sari handiagoak eskainiz eta ordu hobeak aukeratuz. Eta abar.

Gatxa izango da garai bateko maila berreskuratzea (gu baino zaharragoei entzun besterik ez dago), baina bide onetik goazela uste dut. Seguru nago datorren urtean aurtengo maila ere hobetu egingo dela.

Hor arazo handi bat dirua da (auzoetako jaietarako diru gehiago banatu beharko luke Udalak) eta beste bat ganorazko toki itxi baten falta (frontoi bat ez letorkiguke txarto). Badirudi urte batzuetan ez dugula horrelakorik izango; beraz, dagoenarekin jokatu behar...

Gauzatxo bat ATB dela eta. Aurtun ere auzoan izan ditugu ATBkoak bertsoak eta beste grabetan. Baina ondikon auzoan ez da ATB ikusten. Eta hau ez dago hain ondo. Urtea joan urtea etorri, eta gure auzoa diskriminatua. Entzun dudanez, larter batean konponduko ei da arazo hau. Hala bedi! Eta ATBkoei proposamen eta eskaera bat: datorren urteko gure jaien inguruan egizue dokumental luze eta polit bat, bertakoak behingoan pozik uzteko eta, zergatik ez, ingurukoak gure jaietara erakartzeko.

Amaitzeko, eskerrak eman jai hauek antolatzen aritu diren guztiei, eta mugitzen hasi diren gazteei, Euskal Herriko beste puntan

dioten letxe, hauxe: **Biba zuek!**

TXIPI

Estatistikak

Otsailaren 7an, hiru urte beteko dira Arrasateko Herriko plazan egiten diren kontzentrazioak hasi zirela. Urte hauetako zenbait datu ondorengo taulan ageri da. Bakoitzak bere ondorioak atera ditzala.

Hasierako datak inpor-

URTEA	KONTZENTRAZIOAK	HILDAKOAK
1992	15	23
1993	11	17
1994	13	15
1995(1)	2	2
GUZTIRA	41	57(2)

direla esan beharra dago, baina kasu batzutan -honetan, adibidez-, azken kontzentrazioa noiz izan den jakitea askoz ere inportanteagoa da.

Egin dugun kontzentrazioa azkena izan dadila espero dezagun.

(1) 95/01/05-95/01/24

(2) Bost alde batetik, berrogeita hamabi bestetik.

92ko otsailaren 26an elkartu zen jende gehien mila lagunetik gora eta 94eko abuztuan gutxien ehun baino gutxiago.

J.J. ZABARTE

Zuzenketa

262. aleko erreportaietan, zaborra uzteko ordutegia gaueko 7etatik zaborra jasotzen den unearterako dela idatzi genuen, baina ordutegia gaueko 9etatik zaborra jasotzen den une artekoa da.

Zer iruditzen zaizu ATB?



**Nina Jimenez
Etxekoandrea
(31 urte)**

Norbaitek ezagunen batek irten duela esaten badit, ikusi egiten dut, bestela ez. Gainera euskara ez dut ondo ulertzen eta kosta egiten zait ariari jarraitzea.



**Roberto Elorza
Euskadiko Kutxako
langilea
(40 urte)**

Mondrasport saioa ikusten dut batez ere. Gustatzen zait ATB ikustea.



**Yoana Fernandez
Ikaslea
(14 urte)**

Ondo, gustatzen zait. Gehienbat gazteentzako programak ikusten ditut.



**Ruben Losa
Langilea
(25 urte)**

Ez dut esan nahi euskaraz ondo dakitenentzat baino ez denik, baina gutxiago ulertzen dugunontzat ere egin beharko lukete zerbait.



**Miren Bego Garcia
Irakaslea
(35 urte)**

Orain gutxiago ikusten dut, denbora falta zait-eta. Gehienbat albistegia ikusten dut. "Ibilixan Dabilena" programa gustatzen zitzaidan eta baita eztabaida saioak ere.




**Ana Castro
Postaria
(27 urte)**

Ez dut askotan ikusten. Euskara ez dudanez ondo ulertzen, zailtasunak izaten ditut albisteak ulertzeko. Jaietan izaten diren programa bereziak gustatzen zaizkit.



**Ezequiel Carmona
Langilea
(33 urte)**

Ez dut ikusten, beraz, ezin dut zer iruditzen zaidan esan. Kritika bakarra euskararena da, ez dut ulertzen.



**Pedro Garcia
Fagorreko langilea
(36 urte)**

Gustatzen zait baina noizean behin ikusten dut, batez ere berriak. Batzuetan euskara zail samarra iruditzen zait eta kostata ulertzen dut.



"San Valentin" eguna prezio hobeak eskainiz ospatzen dugu, oraingoak "borobilduz", zapata, poltsa, kartera eta gerrikoetan.

Otsailaren 11, 13 eta 14ean

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igualetoia79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaitzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 10
 Egunez eta gauez: Guallar. Bergara.
 Gaueko 10.00ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

Larunbata 11
 Egunez eta gauez: Estella. Bergara.
 Gaueko 10.00ak arte: Español. Iturriotz

Igandea 12
 Egunez eta gauez: Estella. Bergara.
 Gaueko 10.00ak arte: Corcuera. Musakola.

Astelehena 13
 Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.
 Gaueko 10.00ak arte: Irizar. Erguin.

Asteartea 14
 Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.
 10.00ak arte: Amezua. Sta. Marina.

Asteazkena 15
 Egunez eta gauez: Puy. Bergara.
 10.00ak arte: Ruiz. Maala.

Osteguna 16
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

10 OSTIRALA

ZINEA
 "Frankenstein" 7etan eta 10etan.

PRENTSAURREKOA
 ATBren bost urteak direla eta, prentsaurrekoa AEDren egoitzan arratsaldeko 6etan.

ANTZERKIA

Otsailaren 17an, "Errenta" antzezlan "Bederen 1" antzerki taldearekin. Amaia antzokian, gaueko 10.30etan. Sarrera: 700 pta. eta 500 pta. gazte txartela-rekin.

IKASTAROKAK

Famili eta Gizarte Heziketarako zentruak hainbat ikastaro antolatu du: tapiz eta makrame eta bolillo-enkaje ikastaroak, asteartetan 6.30etatik 9etara. Asteartetan 3.30etan bolillo-enkaje ikastaroa. Ostegunetan 3.30etan, tapiz eta makrame ikastaroa. Izenematea zabalik dago.

11 LARUNBATA

ZINEA
 "Frankenstein" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

HERRI IRRATIA
 Herri Irratiko "Herriz herri" saioa Arrasaten. Goizeko 11.15etatik 12.45etara. Udaletxeko pleno aretoan.

GIMNASIA ERRITMIKA ERAKUSKETA
 Arratsaldeko 5etan, Iturripen. Hirurogei neskak hartuko dute parte. Arrasateko gimnasia taldeak antolatuta.

TXATXILIPURDIKO LUDOTEKA
 Txatxilipurdiko ludoteka ibiltaria Musakolan. Musakolako alkatetzan, Maixu Aranbarri plazan, goizeko 11etatik ordubatera. OHoko 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. mailakoei zuzenduta.

ESKI TRABESIA
 Eski trabesia Panticosan, Besaide Mendizale elkar-teak antolatuta. Beharrezkoa: federatuta egotea, mendiko eskikorako materiala eta piolet eta kranpoiak izatea.

KONTZERTUA GAZTETXEAN
 Aretxabaletako Gaztetxeak 4. urtebetetzea ospatzeko egun berezia. Eguerdian poteoa. 2etan bazkaria. 4etan mus, tute eta futbolin txapelketa. Gaueko 10.30etan "Flying Rebollos" taldearekin kontzertua.



12 IGANDEA

ZINEA
 "Frankenstein" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

SANTA AGEDA MUTILAK
 Aretxabaletako herriko plazan Santa Ageda mutilek dantzaz egingo dute arratsaldeko 7etan.

ERAKUSKETA

"Gailurretan", Iñurategi anaaien erakusketa Monterronen, otsailaren 7tik 22ra. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.

GIMNASIA ERRITMIKA ERAKUSKETA

Iturripeko Kiroldegian arratsaldeko 5etan larunbatean.

13 ASTELEHENA

ZINEA

"Frankenstein" 7etan eta 9.30etan.



14 ASTEARTEA

ZINEA

"Frankenstein" 7etan eta 9.30etan.

SAN BALENTIN EGUNA

Ez ahaztu egin berezi hori.



LARRUA LANTZEKO IKASTAROA

Otsailaren 22an hasi eta asteazken eta ostiraletan goizeko 9.30etatik 11.30etara. Emalea: Marieli Otero. Izenemateko epea otsailaren 16an bukatuko da. Prezio bereziak gazteendako. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak antolatuta.

AED-KO BERTSO-ESKOLA

AED elkarteak 11-14 urte bitarteko neska-mutilentzat bertso-eskola antolatu du. Ostiral arratsaldetan bilduko da lan-taldea ikasturte amaiera arte. Argibide gehiagorako AEDra zuzendu eta Esterrekin jarri harremanetan. Telefono zenbakia 771228.



AFARIA SAGARDOTEGIAN

Aretxabaletako Loramendi kultur elkarteko Berri-Zahar taldeak antolatuta, afora Ataugo Urbitarte sagardotegian, otsailaren 17an. Autobusean oraindik ere lekua dago. Interesatuok Loramendiren lokalean edo Arlutz tabernan eman dezakezue izena, astelehena baino lehen. Ostiraletan arratsaldeko 7etan irtengo du autobusak Azbetik.

15 ASTEAZKENA

HITZALDIA

Alzheimer gaixotasunari buruzko hitzaldia. Hizlariak: Enrique Arriola, Matia Fundazioko geriatra eta Borja Inza, Ospitale Psikiatriko eta Matia Fundazioko terapeuta. Monrerronen, arratsaldeko 4retan.

16 OSTEGUNA

ZINE KLUBA

"Fresa y chocolate" Amaia antzokian arratsaldeko 9.30etan. Sarrera: 300 pta. eta 250 pta. gazte txartela-rekin.

HITZALDIA

Alzheimer gaixotasunari buruzko hitzaldia. Hizlariak: Santiago Breñas, Matia fundazioko gainbegiratzaila eta Nekane Larrañaga, gizarte laguntzaila. Monrerronen, arratsaldeko 4retan.

DANTZA IKASTAROA

10-14 urte bitartekoei zuzenduta, dantza ikastaroaren hasiera. Gazte bulegoak antolatuta Ostegunero 6.30etatik 7.30etara.

HITZALDIA

Gaia: Elizen arteko Biblia. Hizlariak: Dionisio Amundarain, Ramon Irizar eta Iñaki Mendiguren. Arrasateko elizak antolatuta. Monrerronen, arratsaldeko 7etan.

KANTALDIA

Jabier Muguruzaren kantaldia Durangoko Berbaro tabernan, arratsaldeko 8etan. Berbaro elkarteak antolatuta. Sarrera doan.

ERAKUSKETA

Victor Ayalaren pintura erakusketa Harresi Aretolan otsailaren 19ra arte. Ordu-tegia: egunero 6etatik 8etara. Larunbat eta jaieguneetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

IGERILEKUA ITXITA

Eusko Jaurlaritzaren araudia betetzeko egin behar dituzten garbiketa lanak direla-eta. Otsailaren 13tik 19ra itxita egongo da igerilekua.

MENDI IRTERA

Besaide Mendizale elkarteak mendi irteera antolatu du Arraras-Guratz eta Gorritira otsailaren 19rako. Prezioa: bazkide nagusiek 1.000 pta. ordaindu beharko dute, gazteek 500 pta. Bazkide ez diren nagusiek 1.300 pta. eta gazteek 800 pta. Izenematea otsailaren 14, 15 eta 16an, 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan.

“1989an atzera egin zuen ekonomi zikloak behea jo zuen 1993an. 1994ean, berriz, gorantzako bideari ekin dio. (...)

1995ak, beraz, despege urtea izan behar du eta zifra macroekonomikoez ekonomia dinamikoagoa izango dela iragartzen dute, eta batez ere, lana %1,2 eta %1,8 bitartean haziko dela. Horrela bada, 150.000 eta 200.000 lanpostu berri sortu ahal izango dira”.

Jose Mari Ormaetxea 95eko urtarrila. **lankide**

“Gerra batean inor ez dela irabazle aspaldiko esaera da, elkar ulertzeko gaitasun eza erakutsi besterik ez baitu egiten. Poterea, ustelkeria...ez dira aidean eusten, zutoinetik hasi eta egunero eta denon artean lantzen ditugun sare eta hormazurrez baino. Eta berdin, pakea egiteko bidea zerraldoz betea baldin bada, zeinen eta zeinentzako... aho isilez eta esku lotuez nolako askatasuna... Pakea, bizitza duin bat, askatasuna... ezin ditu “irabazleak” (berdin zait zein den) goitik behera ezarri, eguneroko, orduroko keinu zehatzenetik behar dute hasi, etxe on bat eraikitzeko ez baitu edozein materialek balio”.

Nekane San Miguel 95-2-5

Egunkaria

“Arrasateko Jose Angel Barrutiabengoak amaitu berri du bertako gaitxizenen bilketa lana. Mila baino gehiago dira gure egunotaraino iritsi direnak. XV. mendetik hasita, 1960 bitarteko herriko artxiiboak arakatu ditu. (...)

Badirudi gaitxizenaren garai onenak betiko joan direla; herri txikiko lehengo harreman bero bezain zuzenetik hiri estandarizatuko oraingo erlazio hotz eta telezuzendura pasatu garenean, gaitxizenak atzerapausua eman du. (...)

Gaitxizenen gaineko azterketa soziologiko batek, artxiboetako dokumentazioak baino ondorio garbiagoa eskain dezake edozein herriren izanari buruz.

J.M. Velez de Mendizabal 95-2-7 **Egunkaria**

Zer lortu nahi da “Zaborraren problematika aztertzen” kanpainarekin?

Bereziki seigarren eta zazpi-garren mailako ikasleei zuzenduta dago kanpaina hau. Zaborrek ingurugiroan sortarazten dituzten arazoak azaldu eta birziklatzeko edukiontziak erabiltzera bultzatu nahi ditugu ikasleak. Birziklatzeak naturaren defentsarekin zer ikusia daukala erakutsi nahi diegu eta, era berean, ez dela guk asmatutako zerbait, baizik eta naturak ere birziklatu egiten duela.

Astelehenean, otsailaren 6an hasi zen eta maiatzaren bukaera aldera bukatuko den kanpaina berri hau, Deba Garaiko Mankomunitateak eta Udalako Ingurugiro Eskolaren artean antolatuta dugu, Diputazioak egin zuen “Egizu keinu naturala” kanpainari jarraipena eman asmoz. Mankomunitatean dauden hemeretzi ikastetxetara hurbilduko gara eta guztira 1.600 ikasle inguruk izango dute kanpainaren berri. Helburuak lortzeko, ostera, honako pausuak jarraituko ditugu: lehenengo inkesta bat egin ikastetxe bakoitzeko ikasleek gaiaren gainean zer dakiten jakiteko. Ondoren, zaborren inguruan dagoen problematika azaldu, historian zein zabor moeta izan diren aztertu, zabor poltsen azterketa egin eta zaborrekin zer egin daitekeen ikusi. Bukatzeko, gaur egungo egoera zein den eta berrogeitamar urte barru zein izango den aztertuko dugu.

Garbi dagoena zera da, jendeak gero eta kontzientzia handiagoa duela zaborren gainean eta horregatik, gero eta jende gehiagok erabiltzen ditu edukiontziak. Baina, bestalde, eskola askotan badago kezka bat, izan ere, birziklatzeko dauden ontziak urrun geratzen zaizkie. Administrazioak irtenbidea eman beharko lioke arazo horri edo bestela, eskoletarako beste bilketa sistema bat asmatu.



Kandi Fernandez
Ingurugiro Eskolako
Zuzendaria

VE ECUADOR

B i d a i a k



Hile honetan ATBketan lehiaketako aste bukaerarako bidaiaren irabazleak Saioa Mendizabal eta Igone Mendizabal izan dira.

Zorionak eta ondo pasa!!

Kontzeziño, 2 ARRASATE Tfnoa: 79 14 06

Larrialdietarko zerbitzua mahai gainean

Larrialdietarako sortu asmo den zerbitzua eratzeko onarpena mahaigainean geratu zen ostiralean egin zen udal plenoan. Gai hori nahikoa eztabaidatua izan zen, orain dela urte bat aztertu zenez, zinegotzi batzuk (EA eta PSE-EEkoek) ez zuten-eta orduan hitzartutakoa gogoratzen.

Bestalde, Osasun eta Gizarte Zerbitzu sailerako egin nahi den kontratazioa ere asko eztabaidatu zen. Udal plenoak langilea kontratatzeke arauak finkatu behar zituen, eta azkenean, lanpostu hori finkoa izango dela eta langilea deialdi publiko zabala eginez aukeratu dela erabaki zen.

Intsumisioaren gaiak ere ekarri zuen gorabeherarik. PSE-EEkoek epaiketek sortuko duten miloi bateko gastua ordaintzea ez dute begionez ikusten. Norbaitek soldaduzka egitea erabakiz gero Udalak horren gestioak ere egin beharko lituzkeela uste dute. Bi bider bozketatu eta gero, alkatearen kalitatezko botoarekin 94ko martxoan onartutako mozioaren alde egin zuen udalbatzak. Horren arabera, Udalak ez du soldaduzkara joan behar dutenen zerrendarik emango eta epaiketen gastuak ordaintzen jarraituko du.




Estremadurako artisautza Arrasaten

Otsailaren 3tik 8ra arte, Estremadurako artisautza eta elikadurari buruzko erakusketa egon zen Corazón de Encina elkartearen. Saskiak, kanpaiak, mosaikoak, panpiñak, olibak, ardoak, gaztak, etabar, jenerorik asko ikusi eta erosteko aukera izan da egunotan. Produktu guztiak lehengo erara egin dituzte Estremadurako berrogeita hamar artisauk eta erakusketatik atera den dirua artisauk berek jaso dute. Erakusketako arduradunaren berbetan, Estremadurako artisauen egoera ez da ona, egunetik egunera kanpoan egindako produktu gehiago sartzen ari delako. Hori dela-eta, gero eta artisau gutxiago dagoela ere esan zuen arduradunak.

Gailurretan

“Gailurretan”, Felix eta Alberto Iñurrategiren erakusketa inauguratu zen asteartean Monterronen. Aurretik Gipuzkoako beste hainbat herritan izan da erakusketa eta Arrasaten otsailaren 22ra arte izango da. Erakusketan, argazkiak eta mendi espedizioetan erabili duten materialeak dago ikusgai: motxilak, botak, kranpoiak, lo egiteko sakuak, dendak... Horrez gain, astearte, asteazken eta ostegunetan hitzaldiak eman zituzten Iñurrategi anaiek Makalu, Pumori eta K2 mendietara egin zituzten espedizioen berri emateko.



Santa Ageda

Urtero moduan, Santa Ageda egunetz eskean irten zuen Arrasateko hainbat lagunek. Bi taldetan banatuta, goizez eta arratsaldez ibili ziren kantuan eta eskean. Arratsalde partean, Portaloian batu ziren denak Santa Ageda batera kantatzeko.

Setienen aldeko idatzia

Joan zen astebukaeran Jose Maria Setienen aldeko idatzia irakurri zen Gipuzkoako elizetan. Arrasaten ere, zapatuko eta domekako mezatan Gipuzkoako apezpikuaren aldeko idatzia irakurri zen. Jaunhartearen ostean irakurri zen idatzia.

JAIOTZAK

- Nerian Hernández Benito. Urtarrilaren 27an.
- Maddi Barra Alonso. 28an.

EZKONTZAK

- Luis Méndez López & Isabel María de las Mercedes Azkoaga Mendizabal. Urtarrilaren 7an. Elizaz.
- Juan Luis Okina Etayo & Maite Arribas Alvarez. 21ean. Elizaz.
- Luis Ruiz de Austri Otaduy & Ane Miren Arexola-Leiba Biteri. 28an. Zibilez.

HILDAKOAK

- Teresa García Rodríguez. Urtarrilaren 30ean. 89 urte.
- Nikolas Zarrhoa Zarrhoa. 31n. 95 urte.
- Tomasa Arrazola Idigoras. Otsailaren 4ean. 85 urte.
- Jose Royo Gómez. 4ean. 87 urte.

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

Iurrindegia
perfumeria
ZARRAOA
ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



Uribe auzoan alokatu du lokala mugimendu gnostikoak.

Sekta ei da Arrasaten finkatu nahi den taldea

Arrasaten eratu nahi den "Movimiento Gnóstico Cristiano Universal de España" delako taldea sekta bat da, sektei buruzko informaziorako eta aholkularitzarako Bartzelonako bulegoak adierazi duenez. Bulego horrek egindako ikerketek erakusten duten moduan, gainera, sekta suntsitzailea da. Hau da, dependentsia patologikoa sortzen duenez, askatasuna galtzen du taldean sartzen denak, taldearen menpe geratzen da eta familiarekin eta lagunekin harremanak hausten ditu.

Talde gnostikoak Madrilen du egoitza baina, horrez gain, Gasteiz, Donostia, Bilbo eta beste hainbat tokitan ditu bulegoak. Arrasatera azaroaren hasieran heldu ziren. Azaroaren 3an Monterronen hitzaldia emateko baimena eskatu zuten baina Udalak ez zien baimenik eman. Orduan, Uribe auzoan lokal bat alokatu eta bertan hitzaldiak ematen hasi ziren. Baina lizentziarik ez zutenek, ekintzak bertan behera uzteko

agindu zien Udalak.

Hala ere, talde gnostikoak ez du atzera egiteko asmorik eta dagoeneko izan dira Hirigintza sailean behar duten lizentzia emateko eskatzen. Seguruenik taldeak ez du lizentzia jasotzeko eragozpenik izango, Barne ministeritzan erregistratuta daudeta, hau da, taldea legala da. Era berean, gutuna bidali diote Arrasateko alkateari, Bartzelonako bulegoak ziurtatutakoa ez dela egia esateko eta nahi dituzten ekintzak egiteko eskubidea dutela adierazteko.

Lokala zabalik izan den denboran ostialero egin dituzte batzarrak eta hitzaldiez gain, yogan, filosofian, psikologian, antropologian eta beste gai batzutan murgiltzeko ekintzak antolatuta dituzte dohainik. Taldearen finantziazioaren gaia, hala ere, nahiko iluna da, eta horrelako taldeek egin ohi dutenez, kideei eskatzen diete dirua. Mugimendu gnostiko hau, Victor Manuel Gómez kolonbiarrak sortu zuen 1954. urte inguruan.

Andikano jauregia berritu

Erdikokalean dagoen Andikano jauregia berritzen hasiko dira hilabete honetan. Zaharberritzea 11 milioi inguru kostako da eta Donostiako Ibarbia y Casla enpresa arduratuko da konponketa egiteaz. Hilabete honetan XVII. mendeko etxearen galeria, harmarriak eta aurrekaldea txukuntzen hasiko dira eta ondoren lehoiak ere konponduko dituzte. Obrak guztira, lau hilabetez luzatuko direla uste da.

Zaharberritzearen kostua Diputazioaren, Udalaren eta jabeen artean ordainduko dute. Foru Aldundiak lau milioi emango ditu, Arrasateko Udalak bi eta gainontzekoa jabeek ordainduko dute.

Liburuxka

Udaleko Gizarte Zerbitzu sailak zein laguntza eskaini dezakeen azaltzeko, liburuxka batzuk plazaratuko dira. Ekintza horren helburua informazioa ematea izango da eta 407.815 pta.ko kostua izango du.

Seinalizazioa

Lau Biden dagoen udal aparkalekurako seinalizazioa erosiko du Udalak. Guztira 16 seinala gehiago jarriko dira eta 132.144 pta.ko kostua izango du. Seinalen helburua, aparkalekua non dagoen adieraztea izango da.

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
Setatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99



Beira uzteko 48 edukiontzi eta papera uzteko beste 32 daude Arrasaten.

Paper eta beira gehiago birziklatu zen iaz

Deba Garaiko bizilagunek gero eta paper eta beira gehiago uzten dute Mankomunitateak birziklatzeko dituen edukiontzietan. Iaz 787.020 kilo beira jaso ziren Deba Garaian eta 93an 700.000. Arrasaten bakarrik 263.597 kilo beira jaso dira, horretarako dauden 48 edukiontzietan. Era berean, paperaren bilketak ere gora egin du. 94ean 860.700 kilo batu ziren Mankomunitateko zortzi herrietan, eta orain dela bi urte 654.250.

Edukiontzi gehiago jartzeak izan du eraginik igoera honetan, joan zen urteko maiatzean edukiontzien kopurua handitu egin zuten-eta. Hala ere, Mankomunitateko arduradunen esanetan, helburua 500

biztanleko beira eta papera uzteko edukiontzi bana izatea da. Hori dela eta, Arrasaten beira uzteko beste bi edukiontzi eta papera uzteko beste 18 behar izango lirarteke (beira uzteko 48 edukiontzi daude eta papera uzteko 32). Oraingoz ezer erabaki ez bada ere, edukiontzi gehiago non jar daitezkeen aztertzen ari da Mankomunitatea eta baliteke aurrerago gehiago izatea.

Baina hondakinak birziklatzeko ohitura ona hartu den arren, edukiontzien ondoren zaborrak uzteko ohitura txarrak ere jarraitu egiten du oraindik. Horregatik, toki horietan zaborrik ezin dela utzi gogoratu nahi izan dute Mankomunitatekoek.

Gurutze Gorria

Deba Garaiko Gurutze Gorriak iazko ihardueraren berri eman du. 94an 1.384 aldiz atera zen anbulantzia laguntza eskaintzera. Arrasateri dagokionez, herrian izan ziren 30 kirol istriputan, 26 etxeko istriputan, oinezko 46 istriputan eta 68 trafiko istriputan izan ziren. Horrez gain, berehalako laguntza behar zuten 79 gaisori lagundu izan zieten eta bestelako 162 larrialdietan ere izan ziren. Iaz Arrasate eta Bergaran gertatu zen trafiko istripu gehien.

Gurutze Gorriak 95ean zehar 10.500.000 ptako sarrerak izango dituela espero du eta gastuak, oster, 12.850.000 ptakoak izango direla uste du.

Ingurugiro kabina

Denbora gutxi barru, ingurugiro kabina jarriko dute Lau Bide inguruan. Kabinak airearen kalitatea neurtuko du eta edozein anomalia gertatuz gero abisua ere emango luke. Arrasaten, autoek botatzen duten keak sortzen du arazo gehien. Udalak 581.000 pta gastatuko ditu kabinaren instalazioan.

Langile industrialak behar dira Gipuzkoa osorako

1. mailako ofizialak, 2. mailako ofizialak eta hurrengo sailetan esperientzia duten peoi espezializatuak

- Hainbat tornu (eskuzkoak, automatikoak, zenbakizko kontrola, etabar).
- Makineria industrialaren muntaia.
- Mandrinatzeko makinak (eskuzkoak eta automatikoak).
- Soldadura (MIG, TIG, gas-garra, aluminioa, kobrea, elektrikoa, etabar).
- Fresatzeko makina (eskuzkoa eta automatikoa).
- Orekatzeak, kalibratzeak, egokitzeak.
- Galdaragintza.
- Iturgintza.
- Arozgintza orokorrean.
- Elektrizitatea.
- Igeltseritza.
- Obrarako langileak.

Curriculum eta nortasun agiri neurriko argazkia bidali Donostiako 1.846.20.006 posta kutxatilara, kartazalean postuaren izena eta bizilekua adieraziz.



Taberna-jatetxea Kafetegia

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea





Orain dela hamabi urte egin zen gaurko egunean indarrean dagoen ordenantza.

Auzoetako bideei buruzko ordenantza berria egingo da

Auzoetako bideei buruzko ordenantza berria prestatu du Udaleko Hirigintza sailak eta martxoaren 1era arte, ordenantza berri horri alegazioak aurkezteko aukera izango da. Auzoetan egingo diren bideak zelan finantzatu diren, konponketak nork egingo dituen eta mantenimenduaz nor arduratuko den finkatuko da, besteak beste, ordenantza horretan. Azken urteetan indarrean egon den ordenantza orain dela hamabi bat urte egindakoa delako ari dira berria egiten.

Hirigintzak prestatutako zirriborroa aztertzeke, auzo alkateek bilera izan zuten asteazkenean. Proposamen berriak nahikoa aldaketa ekarriko dituen arren, finantziarioaren ata-

la izango da, seguruenik, gorabehera gehien ekarriko dituen.

Bestalde, ostiraleko Udal plenoan onarpena eman zitzaizen Arau Osagarriari eta orain Diputazioari bidaliko dira. Arau Osagarrien arabera, ez da baserriak eraikitzeagatik dirurik ordaindu beharko, baina zoru hiritarrezinean etxebizitzak eraikitzeagatik bost miloi pta. ordaindu beharko zaizkio Udalari. Baserriak eraiki ahal izateko gainera, honako betebeharrak finkatu dira: nekazal aseguruia izatea, baserriak lanpostu bat sortzea eta abel-nekazal ustiapenek baserriaren beharra izatea. Baserri eta etxebizitzak, Udalak horretarako zuzendu dituen eremuetan eraiki beharko dira.

Iratarz ala Oldartzen

- Larunbatean, otsailaren
- 11n, Oldartzen eta Iratarz
- dokumentuen aurkezpena
- egingo da Arrasateko
- Arrano Ekartean.
- Aurkezpena goizeko
- 10etan hasiko da eta
- edonor joan ahal izango da.
- Oldartzen dokumentua
- HBko Mahai Nazionalak
- egindakoa da eta Iratarz,
- Oreretako Herri
- Batzordeak aurkeztutakoa.
- Bien helburua, datozen
- urtetan zein ildo jarraituko
- den zehaztea da.

Azalpena egin ostean, bozketa egingo da otsailaren 16an arratsaldeko 7etan. Bozketan dokumentu bat edo bestea aukeratuko da eta gero horren eztabaida prozesua hasiko da, emendakinak egiteko aukera ere izango denez.

Telekrontoladorea

Uraren kontrol zuzena eramateko telekrontoladorea jarriko du Udalak. Tuberiaren bat apurtu den jakiteko aukera izango da aparailu horren bidez. Ur asko galtzen dela-eta jarri nahi da telekrontoladorea.

San Martin Osasundegia

**DERMATOLOGIA
UNITATEA**
Garcandia Doktorea


**PATOLOGIA DIGESTIBOEN
UNITATEA**
Otazua Doktorea

**OBSTETRIZIA ETA
GINEKOLOGIA UNITATEA**
Serrano Doktorea

**PSIKOLOGIA
UNITATEA**
J.R. Fernandez


ZIRUGIA UNITATEA
Alberro Doktorea

Ramon María Lili, 2 BERGARA • Tfnoa: 76 59 39/72 • Faxa: 76 25 72



Gesalibarren ohitura zaharra da Santa Ageda egunean auzotarrak kalera jeistea Santa Ageda kantatzera. Aurten ere, ohiturari eutsiz, gazteak eta ez hain gazteak kalera, jeitsi eta Santa-eskean ibili ziren.

Gesalibarko jaietan eta Gazte Asanbladak antolatuta, Mus txapelketa izan zen domekan. Zortzi bikotek hartu zuten parte eta irabazleak Asier Zulueta eta Alex Goirizelaia izan ziren. Txapel-dun orde Gorka Unamuno eta Jabi Elices izan genituen; hirugarren geratu zen bikotea Aitor Ormaetxeak eta Jabier Nafarretek osatu zuten. Zorionak!



Orkatz Skaut-eko "Trebeak" taldeko bederatzik lagun Orduña inguruan egon ziren lau egun pasatzen. Hotz handia egin zuen arren oso ongi pasa dutela esan digute. Mendirik mendi eta lagun artean, ez dago txarto pasatzerik!

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

URRATS
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

PRESS
ARRASATE

Harpidetzak:
77 08 15



"Baietz barrez lehertu" ETBko saioan 2 minutu eta 30 segundutan zortzi txiste kontatuko dituzte Almen ikastolako lau ikaslek otsailaren 23an. **Xabier Makazaga** 5.mailakoa, **Aitor Oiar-**

zabal 3. mailakoa, **Joseba Arkauz** 4.mailakoa eta **Jone Etxebarria** 6.mailakoa, txiste kontari ikusteko aukera izango dugu otsailaren 23an. Ez ahaztu!

Corazon de Encina taldekoek "Jueves de compadre" eguna ospatu zuten zapatuan. Asteburuan Estremadurako produktuak izan

ziren ikusgai Corazon de Encina taldearen egoitzan. Zapatua, "Jueves de compadre" eguna, estremeño-entzat hain berezia dena,

bazkari gozo batekin ospatu zuten. Bazkarian Estremadurako produktuak eta jaki tipikoak dastatu zituzten.



IZEN PROPIOAK

● Urtzi Mendizabal

Lopez, 23 urte, arrasatearrak Landare Aromatikoen Kimika eta Morfologiaren gaineko tesia egingo du Grezian. Erasmus beka lortu eta gero, astelehenean joan zen Greziara eta ekainaren 14ra arte egon da bertan. Urtzik Biologia ikasi zuen Leioan.

● Laura Aldalur

Olazabal, 21 urte, atxabaltarra izango da Eskola Politeknikoko idazkari berria. Zuzendaritza idazkaritza ikasi zuen Laurak Deustun.

● Agustin Markaide,

37 urte, arrasatearra izango da Eroski Kooperatibako zuzendari berria. Orain arte zuzendari ordea izan da Eroskin. Enpresa Zientziak eta Zuzenbidea ikasi zituen Agustinek.



**MENDIRAKO
EKIPAMENDU
TEKNIKOAK**

*Denda berria ireki dugu.
Ez itsu-itsuan erosi. Eska ezazu aholkua.
Jon Lazkanok emango dizu.*

HARRURIAGA, 8 BERGARA ☎ - FAX: 76 08 84

**IBARRA
Garajea S.L.**



**EBRO
NISSAN**

*Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua*

●
Txitxinpe
●

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Mariwi
Loradenda



- Eskerrona adierazteko
- Urtebetetze eta jaiotzak alaitzeko
- Eskontzak apaintzeko
- Unerik latzenetan...

**San Valentín egunean ere
lorak bidali itzazu**



Alfonso X jakintsua, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 59



BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Futbito 94-95

Txapelketa

ZALDIBAR
ZALDIBAR
ZALDIBAR

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Hainbat talde bigarren fasean

Bigarren fasea hasteko azken ahalgina baino ez da falta. A multzoko zazpi lehenak sailkatuta daudela esan dezakegu. Hemendik aurrera, hortan, Arrasate Kirolak, Kriskibalda eta Hirei taldeen artean egongo da lehia. B multzoari gainbegirada eman ez, lehenengo hiru taldeak bigarren fasean daude, baina beste taldeen arteko parekotasuna handia da. Lau garren sailkatutik, Totem taldetik, bederatzigarren sailkatura, Pub People taldera, 2 punturen aldea baino ez dago. Beraz, hil ala bizikoak izango dira horientzat falta diren neurketak. C taldeko lehenengo seiak ez

dute sailkatzeko lan handirik egin behar. Ke Oxtias, Nabarros, Excavaciones Lete eta Perrahotsaren artean erabakiko dira zazpigarren eta zortzigarren postuak, lau talde jokuan eta postu bi lehian. Emozioa ziurtaturik, beraz, multzo horretan. Azken taldean beste horrenbeste gertatzen da. Sailkapeneko lehenengo zazpi taldeek lortu dituzte sailkatzeko beherrazkoak diren puntuak. Zortzigarren postua Tronkoteak, Borrock 'n Roll eta Sokoakoaren artean egongo da. Esandakoa gorabehera, lau asteburu falta dira erabaki beharrekoa erabakitzeko.

MARGOAK
JUANMA

Margoak, paperak,
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.
Tfnoa: 79 69 17

Lubia
Cinetakoak

AUKERA
ZABALA

Biteri, 1 ☎: 79 66 53
ARRASATE

Mitarte, 14 ☎: 79 16 00
ARETXABALETA

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ADELAIDA HAIZEA	16	12	2	2	91	28	26
ZULOAK	16	11	4	1	75	33	26
SALENCO Y KON	16	13	0	3	73	39	26
BUKANAK	16	11	3	2	70	51	25
ZOTZ	16	11	2	3	67	44	24
FOSFOROS	16	11	2	3	65	20	24
CERV. LEINTZ	16	11	1	4	39	33	23
ARRAS. KIROLAK	16	7	3	6	73	57	17
KRISKIBALDA	16	8	0	8	51	71	16
HIREI	16	7	2	7	72	52	16
GANBELAS	16	6	2	8	53	43	14
ATERPE	16	6	1	9	50	60	13
FRAGUEL GOL	16	5	2	9	53	66	12
LOS DALTON	16	5	2	9	51	70	12
INSERT COIN	16	4	3	9	72	79	11
ASTOEN VILLA	16	4	2	10	48	84	10
EZT. EGIN ARTE	16	3	4	9	40	84	10
BAYER LEINTZ	16	2	2	12	39	85	6
ILUNA TABERNA	16	2	1	13	35	104	5
STRAUSS	16	2	0	14	45	94	4

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	16	12	2	2	97	26	26
SUM UGARTE	16	12	2	2	73	30	26
NUEVO TABERNA	16	12	2	2	90	43	26
TOTEM	16	10	3	3	70	36	23
TXEYENEX	16	10	2	4	70	42	22
DANOK LAGUN	16	9	4	3	69	42	22
PEPELUS	16	10	1	5	68	41	21
UGLYS TXINATO	16	9	3	4	83	40	21
PUB PEOPLE	16	10	1	5	88	58	21
LOS DIMY	16	8	3	5	78	44	19
PETROLEROS	16	8	3	5	64	43	19
BERANGO SUL.	16	8	1	7	62	50	17
ANBOTOSTE	16	6	3	7	47	49	15
NO COMMENT	16	3	4	9	42	91	10
TOVARITX	16	3	1	12	22	67	7
LA BANDA	16	2	2	12	38	93	6
ORKATZ	16	2	1	13	34	100	5
ARRASATE ZOO	16	2	1	13	35	90	5
EZKIÑAKO HONTZAK	16	2	1	13	28	91	5
MONTERREY TAB.	16	1	2	13	36	124	4

C taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	16	14	0	2	96	28	28
EQUUS	16	12	1	3	77	38	25
AUTOS MURU	16	11	1	4	84	33	23
ARTZANKOS	16	11	1	4	54	39	23
LOR. POTROAK	16	10	2	4	52	28	22
ORLANDO PIRAT.	16	10	2	4	73	40	22
KE OXTIAS	16	9	1	6	63	67	19
NABARROS	16	9	0	7	71	58	18
EXC. LETE	16	9	0	7	55	38	18
PERRAHOTSA	16	8	1	7	38	44	17
JOTAKABAU	16	6	4	6	44	50	16
FRANTZISKANNER	16	7	2	7	54	55	16
KOKA JUNIORS	16	6	2	8	37	52	14
LEYA	16	5	1	10	59	80	11
BODISCA	16	5	0	11	37	47	10
BANEUKO	16	4	2	10	36	56	10
TXOKO TABERNA	16	3	2	11	28	82	8
DKB	16	4	0	12	34	65	8
POTROSORRI	16	3	0	13	38	89	6
FOTO IMAGEN	16	2	2	12	35	56	6

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	16	15	0	1	108	35	30
AC SURCOS	16	13	1	2	98	53	27
MSM INGENIER	16	12	1	3	79	38	25
LOS HEREDIA	16	11	1	4	79	50	23
D.A IRIZTU	16	10	3	3	67	47	23
MIKELOS	16	10	2	4	72	37	22
OJO AVISORE	16	10	1	5	66	47	21
TRONKOTEAK	16	6	5	5	52	64	17
BORROCK'N ROLL	16	7	3	6	62	51	17
SOKOAKOAK	16	7	2	7	49	54	16
LAUTHERBRUNNER	16	7	0	9	59	50	14
ALTZA PORRU	16	6	1	9	61	75	13
SUKAR	16	5	2	9	64	80	12
BZ SISTEMAS	16	5	2	9	35	54	12
KAKAJAURI	16	6	0	10	46	68	12
ANORTHOSIS	16	5	0	11	28	36	10
MOTZ	16	4	2	10	56	70	10
ELISABETH	16	4	0	12	35	84	8
TEODOLITO	16	2	1	13	40	103	5
RESAKAS	16	1	1	14	36	96	3



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE



Lau neurketa gomendatuko dizkizuegu asteburu hone-
tarako. Bukanak eta Fos-
foros izango ditugu aurrez
aurre, Gaztetxeko derbian.
Partidua Zaldibarren jo-
katuko da zapatuan arra-
tsaldeko 7etan. Txeyenex
eta Pub Peopleen artekoa
mundiala izan daiteke, Zal-
dibarren eguerdiko 12etan.
Domekan, Cervecera Lein-
tzek eta Arrasate Kirolakek
jokatuko dute Zaldibarren
ordubatean, eta ordu bere-
an, baina Iturripe Bn, Zotz-
ek eta Zuloakek jokatuko
dute elkarren kontra.

BELARRIRA

◆ **Okerra zuzendu.**

Xabier Zubizarretak,
Arrasateko alkateak,
Zaldibarko txapelketan
zazpiehun lagun dabiltzala
esan zuen Erreal-Zaleak
aldizkarian. Kontua da,
mila eta berrehun eta
hogeita bost bat lagun ari
direla. Horrela bada, datu
oker hori zuzendu nahi
genuke, zazpirehunetik
mila eta berrehunera aldea
dago eta.

◆ **Santa Ageda.** Santa
Ageda egunean Santa-
eskean joan zen korua
Zaldibarrera. Eguerdiko
ordubatean, Suministros
Ugarte eta Berango
Sukaldeak taldeen arteko
neurketan, Santa Ageda
kantatu, eta txapela pasa
zuen koruak. Ez dakigu
zenbat diru jaso zuten;
baina Suministrosi zortea
eman ziola bai ostera.
Suministros Ugartek 4 eta 3
irabazi zion Berango
Sukaldeak taldeari.

◆ **Atsedena.** Ke Oxtias,
Mikelos, Borrock'n Roll eta
Irati STSk atsedena izango
dute oraingo asteburuan.
Ederto etorriko zaie!

EMAITZAK

A taldea

Hirei 1 - Aterpe 6
Zotz 9 - Fraguél Gol 3
Cer. Leintz 2 - Zuloak 3
Iluna Taberna 2 - Arrasate Kirolak 11
Strauss 4 - Eztanda egin arte 6
Bayer Leintz 0- Adelaida Haizea 11
Kriskibalda 2 - Insert Coin 10
Astoen Villa 2 - Ganbelas 3
Bukanak 5 - Los Dalton 3
Salenco y Konpañia 2 - Fosforos 6

B taldea

Sum. Ugarte 4 - Berango Sukaldeak 3
Txeyenex 6 - Totem 3
Uglys Txinato 6 - Pub People 5
Ezkiñako Hontzak 1 - Trikiti 10
Monterrey Taberna 5 - Nuevo taberna 22
Los Dimy 12 - La Banda 3
Petroleros 1 - Danok Lagun 1
Pepelus 3 - Tovarixt 2
Orkatz 2 - Arrasate Zoo 1
Antotoste 7 - No Comment 4

C taldea

Orlando Piratas 3 - Ke Oxtias 3
Irati STS 7 - Baneuko 2
Equis 1 - Foto Imagen 0
Potrosorri 5 - Koka Juniors 6
Autos Muru 7 - Frantziskanner 4
Perrahotsa 0 - Jotakabau 2
D.K.B 2 - Txoko Taberna 3
Nabarros 4 - Exc. Lete 3
Lorategi Potroak 0 - Artzankos Udalaiz 1
Bodisca 0 - Leya 1

D Taldea

Mikelos 2 - Tronkoteak 2
Kakajauri 1 - Resakas 0
Motz 3 - Sukar 8
Altza Porru 4 - Argi Ibilu 18
MSM Ingenier 4 - Lautherbrunnen 2
Borrock'n Roll 6 - AC Surcos 5
D.A Iriztu 1 - Anorthosis 0
Sokoakoak 1 - Ojo Avisore 3
Elisabeth 6 - Teodolito 5
Los Heredia 8 - B.Z Sistemas 2



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 11

Zaldibar

- 8.50 Elisabeth - BZ Sistemas
- 10.00 Petroleros - Tovarixt
- 11.00 Bayer Leintz - Insert Coin
- 12.00 Txeyenex - Pub People
- 13.00 Orlando Piratas - Baneuko
- 14.00 Los Dimy - Danok Lagun
- 15.00 DKB - Exc Lete
- 16.00 Sum. Ugarte - Totem
- 17.00 Autos Muru - Jotakabau
- 18.00 Altza Porru - Lautherbrunnen
- 19.00 Bukanak - Fosforos

Iturripe A

- 12.00 Hirei - Fraguol Gol
- 13.00 Ezkiñako Hontzak - Nuevo taberna
- 14.00 Equs - Koka Juniors
- 15.00 Astoen Villa - Los Dalton
- 16.00 D.A Iriztu - Ojo avisore
- 17.00 Strauss - Adelaida Haizea
- 18.00 Kakajauri - Sukar

Iturripe B

- 12.00 Monterrey Taberna - La Banda
- 13.00 Potrosorri - Erantziskaner
- 14.00 Motz - Argi Ibilii
- 15.00 Iluna Taberna - Eztanda egin arte
- 16.00 Orkatz - No Commenet
- 17.00 Lorategi Potroak - Leya
- 18.00 Salenco y Konpañia - Aterpe

Igandea 12

Zaldibar

- 8.50 Nabarros - Artzankos Udalaizt
- 10.00 Kriskibalda - Ganbelas
- 11.00 Uglys Txinato - Trikiti
- 12.00 MSM Ingenier - AC Surcos
- 13.00 Cerv. Leintz - Arrasate Kirolak

Iturripe A

- 11.00 Los Heredia - Tronkoteak
- 12.00 Perrahotsa - Txoko Taberna
- 13.00 Pepelus - Arrasate Zoo

Iturripe B

- 11.00 Sokoakoak - Teodolito
- 12.00 Anbotoste - Berango Sukaldeak
- 13.00 Zotz - Zuloak



Nuevo taberna 22, Monterrey taberna 5. A zelako astindua!

Izugarritzko goleadak ikusten gabiltza azken boladan eta jokaturako jardunaldi honetan ere, golak bilakatu zaizkigu protagonista. Nuevo tabernak 22 gol sartu dizkio Monterrey Tabernari, azken sailkatuari. Argi ibilik eta Altza porru nor baino nor izan genituen eta Argi ibilik 18-4 irabazi zuen. Altza porrukoek gaupasa eginda jokatu zuten arren 4 gol sartzeko gauza izan ziren behintzat. Bestalde, Musakolako derbian, Los Dimy eta La Bandak neurtu zituzten indarrak. Los Dimykoek astindu galanta eman zieten La Bandakoei, eta emaitza horren erakusgarri: 12-3.

Datorren asteburuan partidu erabakior bezain garrantzitsu jokatu

dira. Txeyenexen eta Pub Peoplen arteko norgehiagoka ez da nolalahi-koa izango; talde bien artean puntu bateko alde dago eta bigarren fase-rako txartela jokuan. Kriskibalda eta Ganbelasen artean lortzen diren puntuak garrantzitsuak oso izango dira, talde biek sailkatzeko aukera dute-eta. Aitatzeko moduko beste partidu bat, Los Heredia eta Tronkoteak jokatu dutena da. Los Heredia sailkatuta daude, Tronkoteak, ostera, sailkatzeko bidean. Jarraitzaileen animoak beharko dituzte azken hauek eta txapelketako jarraitzaile sutsuenak duten taldea dela jakinda, ez da harmailetan saltsarik falta izan-go.

Elena

Bizkaia Etorbidea, 1. etxeba ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

YOSU HERMIK

VENTANAS AISLANTES

Kalitate goarena leihoetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

RIP: Bizirik eta zuzenean!

Maidar Egües

Mahoma, Portu, Txerra eta Jul Arrasateko punk-aren historian arrasto ezabaezina utzi duten lau gazte dira. Eurak ez dute hain garbi esan nahi, baina 1981. aldera euren letra erreibindikatibo eta antimilitarrak deskubritu zituztenek, badakite, RIP, talde bat baino gehiago, bizitzeko modu bat izan zena. Euskal Rock Erradikalaren etiketapean klasifikatu ziren taldeen artean sonatuenetarikoa bat sortu zuten konturatu gabe, duela hamabost bat urte afizioz jotzen hasi ziren punky zahar hauek. Maxi-single eta diska bat kaleratu ondoren, droga eta beste zenbait arazo tartean, taldea desagertu egin zen duela bost bat urte. Gaur malenkonia eta penaz gogoratzen dute askok RIP taldearen desagertpen edo dekadentzia, baina zorionez, hor dago laister kalera aterako den diska berria. RIP taldeak pisu handiko historia du.

HASIERAK

Porturi, RIP taldearen jatorriaz galdetuta, 1981eko Aramaioko jaiak datozkio gogora. Dirudienez, Portu, Jul eta Txerra bertan zeudela bururatu zitzairen taldea sortzea. Hasierak xelebreak izan ziren oso: taldeak "Doble Cero" zuen izena eta ez zegoen bokalistarik. Jul eta Txerraren etxean hasi ziren "jotzen"; Portuk espainiar kitarra batekin, "baxua" jotzen zuen; Julek kitarra elektrikari radio-kasetean entxufatuta moldatzen zen eta Txerrak, makila bi eta etxeko kojinekin, "bateria" jotzen zuen. Horrela hasi ziren "Sex Pistols" eta "The Clash" taldeen lehen bertsioak egiten. Gero, Juan Luis Zabala, "Mallabi", lehen abestiak kantatzen hasi zen.

Bi urte beranduago Mahoma sartu zen taldean, Mallabiri soldaduzka egiteko txanda heldu zitzaionean. Ordurako, berriz, Mahoma



oso sartuta zegoen taldean, "fan" sutsua zen. Beraz, Mahoma hasi zen taldearekin entsaiatzen. Azkenean, bokalista nor geratzen zen erabaki behar izan zuten eta botuek Karlosen alde egin zuten.

"DOBLE CERO"TIK "RIP"ERA

Mahomak aspalditik buruan zerabilen izenarekin aldatu zioten aurpegia taldeari: RIP. 1983a zen. Portuk eta Mahomak horrenbeste urteren buruan atzera begiratzean, oso urte intentsuak gogoratzen dituzte.

"Erdiko kaleko solairu batean entsaiatzen genuen, Oyal dendaren ondoan. Materialez oso gaizki genbiltzan: bozgorailua Hertzainak taldeko bateriari ostu genion, Txanpiri... baina gero esan egin genion, eee... Goizetik gauera arte egoten ginen han sartuta, kriston burrunbada egiten. Goiko etxeok ez ziren gehiegi kezkatzen, oso ondo portatu ziren. Baina behin municipalak etorri ziren dezibelioak neurtzeko aparatuarekin. Gero Eskoriatzara joan ginen. Herriaren sarreran dagoen etxe bat utzi zigun lagun baten amak. "Esteibar" deitzen zen etxea. Guretzako oso lokal handia zen eta gustora ibili ginen. Ordurako hasiak ginen abesti propioak egiten: hasierako lokaleko paretak izan ziren gure lehen letren testigu" gogoratzen du Portuk.

Taldearekin noraino heldu nahi zuten ba ote zekiten galdetzean, Mahomak "inozentzia" aipatzen du: "RIPen historian, beste ezer baino gehiago, inozentzia handia izan da. Ez genekien zer nahi genuen, ez genuen serio ezer

planteatzen, ondo pasatzea besterik ez genuen nahi. Asteburuetan Oreretako "Happy Day" salara joaten ginen jotzera, asteburua pasatzeko modu bat zen, besterik ez, eta ez genuen ezer kobratzen... beno, batzuetan gasolina ordaintzen ziguten. Betiko berrehun edo hirurehun lagunak elkartzen ginen eta primeran pasatzen genuen. Baina esaten dizut, ez genuen inolako pretentsiorik. Gero etorri zirenak ez genituen espero!"

**"MAXI-SINGLE" A
ESKORBUTOREKIN**

Konturatu gabe, baina taldea oso ezaguna egin zen. Orduan heldu zen euren afizioa erdi-ofizio bihurtuko zuen momentua. Kontaktua baten bidez, Kike Turmix izeneko batek "Spansuls Records" zeritzan zigilu diskografikoa egin nahi zuela jakin zuten. Kike Turmix honek "maxi-single" bat grabatu nahi zuen RIP eta Eskorbutorekin, beraz, Madrileran joan behar izan zuten grabatzera. "Guretzako sekulako saltua izan zen hura: "Happy"an jotzen egotetik, Madrila joan ginen diska bat grabatzera, txo!"

Madriletik bueltatu zire-

nean disko bat ekarri zuten besapean: "Plan ZEN". "Oso gauza handia izan zen hori guretzako", dio Mahomak. Hala ere, "maxi-single" hura eta gero, gauzek aurrera egin eta kontzertuekin jarraitu zuten.

1985. urtean, "Egin" egunkaria "Bat, bi, hiru" atalarekin hasi zen, gaur egun hain ezaguna den lehiaketa-rekin. Astero-astero, lurralde bakoitzeko musika talde bati eman behar zitzaion botua eta urte bukaeran, RIP Gipuzkoako talderik botatuena izan zen. Irabazi zuten gainerantzeko taldeekin, super-kontzertua egin zen Mendizorrozan: Zarama, Hertzainak eta Barricada taldeekin batera, sekulako arrakasta izan zuen kontzertua eman zuten.

Portuk esaten duenez, "guretzako kontzertu hura "katakulta" izan zen".

Apurka-apurka, hain tontamentean lortu zuten arrakasta "whiskyarekin nahasia irensten" joan ziren eta bat-batean, euren izena estatu osoan egin zela ezagun konturatu ziren. Eta "Bat, bi, hiru" lehiaketa aurrera zihohan eta RIPEk lehenengo postuetan jarraitzen zuen...

"Egin"en kontzertu haren ostean hasi ei zen "Euskal Rock Erradikala" etiketa entzuten. Mahomak esaten duenez, "guri ez zigun axola etiketa horren pean klasifikatzea. Gertatu zena zera da: Madrilen "Nueva Ola Madrileña" sortu eta hemen antzeko zerbait asmatu nahi izan zela. Dena dela, hemengo

mobida desberdina izan zen: askoz politikoagoa zen".

Kontuak kontu, RIPEk izateko era bat sortu zuen. Portuk zera gogoratzen du: "Jendeak begi txarrekin begiratzen zigun. "Jaleo bila" ibiltzen ginela uste zuten. Ez zizuten aurpegira ezer esaten baina begiradekin nahikoa zen. Gertatzen dena zera da: Euskal Herriko egoera berezi bat bizi izan duen taldea izan garela, eta sozialki eta drogen kontuan gertatu den guztia gertu-gertutik bizi izan dugula. Arrasate goardia zibilik gabe geratu zenenan sortu zen RIP eta herria droga paradizua zen. Ikusten eta bizi izaten genuenari kantatzen genion. Beraz, momentu hartako egoera sozialak, hala-koak egin gintuen".



**1987: "HERIOTZAREKIN
MAITEMINDUTA"**


Urte haietarako droga oso sartuta zegoen taldean. Portuk bere burua hiltzea nahi izan zuen behin, eta esperientzia haren ondorioz, gaur egun hain ezaguna den "Enamorado de la muerte" kanta sortu zuen.

Urte hartan, Donostia, Orereta eta Zarauzko hiru lagun elkartu eta "Basati Diskak" sortu zuten. Javi Sayés izeneko

Karlos Agirreurreta, "Mahoma"

- 59ko ekainaren 26an jaio zen.
- Cancer
- **Musika talderik gustokoenak:** Therapy
- **RIPen kanturik gustokoenak:** "Enamorado de la muerte" eta "Presos"
- **Edaririk gustokoena:** Errioxako ardoa eta tekila.
- **Pertsonaia:** Kepa Landaluz.
- **Esaldia:** "Esaldiak berak diotsu: Estantea = Ahate-entzako ura".
- **Sekretu bat:** "Maiteminduta nago."
- **Bizioa:** Musika entzutea.
- **Lana:** Autobus gidari ibili da 7 urtean eta orain, berak gura izan duelako, lanari

utzi dio. Solfoea eta pianoa ikasten dabil.



Eduardo Mancebo, "Portu"

- 63ko martxoaren 15ean jaio zen.
- Piscis
- **Musika talderik gustokoenak:** Die Totem Hosem eta Green Day.
- **RIPen abestirik gogokoena:** "Enamorado de la muerte".
- **Edaririk gustokoena:** Joxe Maria eta esnea.
- **Pertsonaia:** Cyrano de Bergerac.
- **Esaldia:** "Kaka egiten dut, beraz, existitzen naiz"
- **Sekretu bat:** "Maiteminduta egotea gustatuko litzaidake."
- **Lana:** Taldearen parentesi honetan lan txikiak egin izan ditu, ezer serioz ez.

Euskera ikasten ibili zen AEKn eta "Ume Gaiztuak" sortu zuen. Orain, delinea-zio mekanikoa ikasten du distantziara.



lagun bati esker, "Basati Diskak" etxe diskografikoko lehen diska RIPEkin grabatu zuten eta urte hartan "No te muevas" elepea kaleratu zuen taldeak. Euren bakarkako lehen elepea izan zen.

DEKADENTZIA

Diska hura eta gero, taldea lokalik gabe geratu zen eta egiten zituzten entsaioak zuzeneko kontzertuak izaten ziren. Modu honetan zuzeneko kontzertu oso onak ematen ikasi zuten; Mahomak esaten duen moduan, "eszenarioa gure entsaio-toki naturala bihurtu zelako".

Baina ordurako drogekin leku garrantzitsuegia zuten taldean, eta maldan behera hasi ziren. Mahoma hasita zegoen gidari lanarekin eta asko aldendu zen taldetik; Txerra eta Jul etxeko negozioan ordu asko sartzen hasi ziren eta kontzertuak asteburuetarako utzi behar izan zituzten.

Azkeneko kontzertuak ARRASATE PRESSEK kalera-tzen zuen 100. alea zela-eta antolatu zena, eta Aretxabaletako gaztetxean Nikaraguarren alde eman zutena izan ziren. Geroztik, 94ko irailaren 30era arte, RIPEk ez zuen eszenatokitik zapaldu.

HIES-Komisioaren aldeko diska

Mahoma, Portu, Txerra eta Jul hiru urte egon dira elkar ikusi gabe, baina duela bost hilabete arrazoi polit batek berriro elkartu zituen lau punky zahar hauek: joan zen urteko irailaren 30ean Gasteizen egin zen HIESaren borrokaren aldeko kontzertuak, alegia.

Txerra aspaldian dago Gasteizko HIES-Komisioan lan egiten eta komisio bertatik sortu zen kontzertuaren ideia. HIESak jota hil direnei omenaldia egitea zuen helburu kontzertuak.

Emanaldiaren ideia sortu zenenan, Txerrak telefonoz hots egin zien "RIP-ohiei": "Izugarri harritu ninduen dei hark. Ni izugarri poztu nintzen eta besteak ere asko poztu zirela uste dut." dio Mahomak telefono dei hura gogoratzean.

Kontzertua baino astebete lehenago elkartu ziren laurak. "Oso berezia izan zen elkarke-ta hura, oso sentsazio arraroa izan nuen, baina hain ondo geunden denok, poz-pozik jarri ginea" diote Portuk eta Mahomak.

Hiru egun eman zituzten entsaiatzen. Hasieran beldurrez, horrenbeste denboran elkarrekin jo gabe egon ondoren, abestiak ondo aterako ez ziren beldur ziren-eta, "baina kitarrak, bateria eta ahotsa astintzen hasi bezain laister, beldurra uxatu egin genuen: kontzertua sekulako arrakasta izan zen" gogoratzen dute taldekideek.

Eskorbuto, Cicatriz, Hertzainak eta MCDkin batera jo zuten. Hasieran ez zuten diska grabatzeko asmorik, baina Cicatriz-ekoek euren kontzertua grabatu eta zuzeneko diska kale-ratzeko asmoa zuten, unitate-mobila alokatu zuten eta harek RIPEkoen kontzertua ere grabatu zuen. Cicatriz taldeko Nachok, diskoa ateratzeko ideia proposatu eta ez zuten atzera

egin. Horrela, beraz, Arrasateko SHOT estudioan konponketak egiten hasi ziren. Diska Aste Santu aldera kaleratuko da eta RIP, Gasteizko HIES-Komisioa eta "Esan-Osenki" etxe-diskografikoaren arteko "hirukoitza" izango da. Diskatik ateratzen diren irabazien heren bat, jakina, HIES-Komisiora joango da, hau baita diska grabatzeko arrazoirik nagusia. "HIES-Elkartasuna" deituko da diska eta "Enamorado de la muerte" abestiaren bertsio berria gehituko zaio. Orijinala baino lasaiagoa da eta Edu Arzamendik pianoarekin laguntzen die. (Entzun ahal izan dugunok, zoragarria dela aurreratzen dizuegu.)

JARRAITUKO OTE DU RIPEK?

Oraindik ez dakite taldearekin aurrera jarraituko ote duten, eta diska honek ez duela hori esan nahi argitu nahi izan dute. Dena dela, diskak etapa baten amaiera markatzen duela azpimarratu dute: orain jarraitzekotan, serio-ago egingo luketela. Atzera begiratu gero zer ikusten duten galdetzean, zera dio Mahomak: "RIP taldeari buruz balantze negatiboa egingo luke jende askok, baina taldea osatu dugunok, gauza positiboak zein negatiboak egon direna dakigu. Hankasartze batzuk izan genituen baina taldeari esker egin genituen lagunak bizitza osorako lagun bihurtu dira, eta bizi izan ditugun esperientzia onak, kontaezinak dira. Gainera, momentu hauetan guzti hau kontatzen egon ahal izatea, nahikoa da guretzat. Oso soka finaren gainean egon ginen jolasten; hemen gaude oraindik, ordea. Guretzako ere, RIP, talde bat baino, bizitzeko era bat izan da".

Profeta baten hitzak ote?

Jose Ramon Bolinaga, "Txerra"

- 62ko abuztuaren 20an jaioa.
- Leo
- **Musika talderik gogokoenak:** Stone Temple Pilots eta Pearl Jam.
- **RIPen abestirik gustokoena:** "Enamorado de la muerte"
- **Edaririk gustokoena:** Coca-Cola.
- **Pertsonaia:** Maphelthorpe.
- **Esaldia:** "Sarna con gusto no pica, pero mortifica".
- **Bizioa:** Eskiatzea.
- **Lana:** Familiako garraio agentzia negozioan ibili zen. Orain Gasteizko HIES komisioan kolaboratzen du eta asteburutan, preso etxe

batean egiten du lan Gasteizen begirale gisa.



Jul Bolinaga, "Jul"

- 64ko otsailaren 2an jaioa zen.
- Piscis
- **Musika talderik gustokoenak:** NOFX eta Green Day.
- **RIPen abestirik gustokoena:** "Condenados"
- **Edaririk gustokoena:** Voll-dam garagardoa.
- **Pertsonaia:** James Bond.
- **Esaldia:** "Ze izorratuta nagoen!"
- **Sekretu bat:** "Horrenbeste ditut, zein esan ere ez dakit".
- **Bizioa:** Tabakoa (Bisonte).
- **Lana:** Familiako garraio agentzian egiten du lan

kamiioi gidari. Urte asko darama lan horretan.



Imanol Alvarez: "Lehen mailari eustea da gure helburua"


Arrasate eskubaloit taldeak lehen fasea bukatu du asteburu honetan. Jokaturako hamabi neurketetatik hiru irabazi ditu, bakarra berdindu eta bederatzi galdu. Zortzi taldek jokatu dute elkarren kontra lehen fasean eta Arrasate, bost punturekin, 6. tokian geratu da. Hurrengo erronka jeitsiera fasea izango da. Asteburu bateko atsedena izan eta gero, otsailaren 18an hasiko da.

- Bukatu duzue lehen fasea. Zelako balorazioa egingo zenuke?

- Pozik nago lortu ditugun puntuekin. Txapelketako aurkari zuzenei irabazi egin diegu eta Zarautz edo Ereintza moduko taldeei ez irabaztea normaltzat hartzen dut. Esperientzia handiko taldeak dira horiek, gu, berriz, hasi berriak baino ez gara. Burgos taldeari ez irabaztea izan da dudak pena bakarra. Baina kanpoan jokatu genuen lehen partidua izan zen eta jokalariek nahiko urduri kantxaratu ziren.

- Aurten lehen mailara igo duzue, zer aurkitzea espero zenuen?

- Hasieran ez nekien zelako maila aurkituko nuen, ezta nire taldeak nola erantzungo zuen ere. Jokatzeko



Imanol Alvarez eskubaloiko entrenatzailea.

hasiaz bat, beste taldeetan esperientzia handiko jokalariek zeudela ikusi nuen, Arrasateko taldean falta den esperientzia. Denboraldi hasieran Zumaiako jokalariek bi fitxatu genituen. Onak dira baina lehen mailan ez dute gura adinako esperientziarik.

- Lehen fasean partidu asko galdu duzue, zer gertatu da?

- Ez dut uste ezer gertatu denik, jokatzeko ari garen maila altua da guretzat eta onartu egin behar dugu. Igo egin behar genuela esan zidatenean banekien zer zegoen

eta zer egiteko gauza ginen. Nire helburua mailari eustea da, eta orain arte, ez goaz txarto. Gainera, gure jokalariek etxeok dira. Iaz maila probintzian jokatzeko zuten eta eurentzat ere jautzia handia izan da.

- Igoera ez da gehiegizkoa izan?

- Enteratu nintzenez zorakeria bat iruditu zitzaidan, baina egoera aztertu ondoren, ez nuen hain txarto ikusi. Bi jokalariek gazte fitxatu genituen eta mailari eusteko gauza izango ginela uste nuen, eta uste dut. Dena dela,

harrobiarekin lan asko egin behar da; taldea lehen mailan izan, gero kanpoko jendea ekartzeko, ez du zentzurik.

- Taldean ez da pisuzko jokalariren bat falta?

- Ni pozik nago jokalariekin, ondo entrenatzen ari dira. Hasieratik nekien zelako taldea izan behar nuen eta jokalariei etekin handiena ateratzeko nabil lanean.

- Ezer somatzen duzu falta taldean?

- Partiduetara jende gehiago joatea gustatuko litzaidake, ez da jende asko joaten eta. Arrasatearrak konturatu egin behar dira jokalariek etxeok direla eta euren laguntza garrantzitsua izan daitekeela partiduetan.

- Bigarren fasea nolako izango da?

- Galizia-Madrid multzotik jeitsiera fasea jokatzeko sailkatu diren lau taldeen kontra jokatzeko dugu. Zortzi neurketa izango dira, lau etxean eta lau kanpoan. Galizia, Lanzarote, Salamanca eta Madrilera joan beharko dugu. Talde hauek ere esperientzia handikoak dira, beraz, nahikoa lan izango dugu hemendik aurrera ere.

- Fase honetako helburua?

- Mailari eustea, jakina.

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

ARGI PLASTIC
• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atak, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30


LABURRAK

● **Arrasateko gimnasia erritmika taldeak erakusketara berezia egingo du zapatuan Musakolako kiroldegian. Bertan pilotaz, uztaiatz, xingolaz eta musikaz baliatuz hirurogei neskatila ikusi ahal izango ditugu ariketa gimnastikoak egiten. Parte hartuko duten neska guztiak arrasatearrak dira eta Arantzazu Zubia eta Adelaida Silvarren zuzendaritzapean entrenatzen dute. Erakusketara arrasaldeko 5etan hasiko da.**

● **Arrasateko judokak Zumaiaiko txapelketan hartu zuten parte zapatuan. Bederatzi judoka joan ziren arrasateetik eta emaitza onak lortu zituzten. David Arnaiz 2. postuan geratu zen 55 kg. arteko kategorian, Itziar Zabalak 2. postua lortu zuen 48 kg.ko mailan eta Ramon Lopezek 3. egin zuen 35 kg.ko sailean.**

Futbitokoek lehen buelta bukatu dute

Arrasateko lehen mailako futbito taldeak bigarren bueltari ekingo dio zapatuan. Madaya eta Arrasate izango ditugu aurrez aurre Urretxuko Aldiri kiroldegian arratsaldeko 7.15etan jokatu den partiduan. Madaya taldeak hemeretzi puntu ditu eta sailkapeneko 4. tokian dago. Arrasatek, bederatzi punturekin, 13. postua betetzen du. Jokatutako hamabost partiduetatik hiru irabazi ditu, hiru berdindu eta bederatzi galdu. Golei dagokionez, 50 sartu ditu eta 73 sartu dizkiote. Lehen buelta oso irregularra egin du Arrasateko taldeak. Orain, bigarren buelta osoa du gauzak aldatzeko eta sailkapenean goruntz egiteko. Arabako territorialekoek, bestalde, astindu ederra eman zioten Donuts taldeari 8 eta 1 irabaziz. Hurrengo neurketa Betikoak taldearen kontra jokatu beharko dute.



Pilotariak Aretxabaletan eta Gasteizen jokatu dute asteburu honetan.

Abetxukoko taldeak hamabi puntu baino ez ditu eta Arrasatek hamalau ditu. Sailkapenari begiratu gero, irabazteko moduko neurketa izan daiteke.

Pilota

Pilotan eskuz banakako partiduan Aretxabaleta eta Arrasate izango ditugu nor baino nor. Ibon Errasti atxalbaltarrak eta Iñaki Korta arrasatearrak neurtuko dituz-

te indarrak Iturrigorri frontoian zapatuan. Tramite hutssezko neurketa izango da. Otsailaren 18tik aurrera final-laurdenak jokatu dira. Arrasate hirugarren sailkatu da, bigarren Mañaria dugu eta lehen postuan Aretxabaleta. Paletan, berriz, Adurtzak eta Arrasatek Gasteizen jokatu dute elkarren kontra zapatuan, arratsaldeko 4etan.

EMAITZAK

<p>Futbola</p> <p>3. maila: Mondra 0 Hernani 2</p> <p>2. erregionala: Eibar 3 Mondra 2</p> <p>Emakumeak: Mondra 8 Intxaurdi 0</p> <p>Jub Ohorezko Liga: Mondra 2 Hamaika Bat 1</p> <p>2. jubenilak: Arrasate 1 Bergara 5</p> <p>Lehen kadeteak: Almen 2 Arrasate 2</p> <p>2. kadeteak: Arrasate 5 Illintxa 3</p> <p>Infantilak: Arrasate 4 Hamaika bat 0</p> <p>Hurrengoak:</p> <p>3. maila: Tolosa - Mondra. Igandea. 4.15etan.</p> <p>2. erregionala: Mondra - Mutriku. Larunbata. 4.15etan.</p> <p>Jub Ohorezko Liga: Martutene - Mondra. Larunbata 3.30etan.</p> <p>Lehen kadeteak: Arrasate -</p>	<p>Aurrera. Igandea. 11.45etan.</p> <p>2. kadeteak: Gazteak - Arrasate. Igandea. 12etan.</p> <p>Infantilak: Aretxabaleta - Arrasate. Igandea. 2.15etan.</p> <p>Saskibaloia</p> <p>EBA Liga: Urbina-Maltzaga 73 Burgos 86</p> <p>Seniorkak S-23: Urbina-Maltzaga 80 Lagun Artea 35</p> <p>Juniorkak A: Urbina-Maltzaga 86 Andraitz 82</p> <p>Seniorkak Emak: Escuela de Ingen. 50 Urbina-Maltzaga 38</p> <p>Kadeteak A: Juven 35 Urbina-Maltzaga 99</p> <p>Kadeteak B: San Benito Ikastola 21 Urbina-Maltzaga 49</p> <p>Kadeteak Emak A: Amigos de Irun 57 Urbina-Maltzaga 37</p> <p>Hurrengoak:</p>	<p>EBA Liga: Bilbao Patronato - Urbina-Maltzaga. Igandea. 12etan. Bilbo.</p> <p>Seniorkak S-23: Eskoriatza - Urbina-Maltzaga. Larunbata. 6etan. Eskoriatza.</p> <p>Juniorkak A: Etxadi - Urbina-Maltzaga. Igandea. 12etan. Donostia.</p> <p>Juniorkak B: Urbina-Maltzaga - Ikastola Urmeak. Larunbata. 4etan.</p> <p>Seniorkak Emak: Urbina-Maltzaga - At. San Sebastian. Larunbata. 6etan.</p> <p>Kadeteak Emak A: Urbina-Maltzaga - Gros Loiola. Larunbata. 12etan.</p> <p>Kadeteak Emak B: Eskoriatza - Urbina-Maltzaga. Igandea 12etan.</p> <p>Eskubaloia</p> <p>Lehen maila: Arrasate 20 - Telde</p>	<p>25</p> <p>Lehen Territoriala: Akondia 15 Arrasate 16.</p> <p>Hurrengoak:</p> <p>Lehen Territoriala: Arrasate - Urrietako. Igandea. 12.15etan. Iturripen.</p> <p>Jubenilak: Arrasate - Aloñamendi. Igandea. 10.45etan. Iturripen.</p> <p>Futbitoa</p> <p>Arabako Territoriala: Arrasate 8 Donuts 1</p> <p>Hurrengoak:</p> <p>Lehen maila: Madaya - Arrasate. Larunbata. 7.15etan. Urretxu</p> <p>Arabako Territoriala: Betikoak - Arrasate. Larunbata. 4.30etan. Abetxuko.</p>	<p>Rugby-a</p> <p>Lehen maila: Eibar 50 Arrasate 13</p> <p>Emakumeak: Arrasate 5 Gaztedi 29</p> <p>Jubenilak: Ordizia 58 Arrasate 0</p> <p>Hurrengoak:</p> <p>Lehen maila: Sestao - Arrasate. Larunbata. 4etan. Garagartza.</p> <p>Jubenilak: Ordizia - Arrasate. Larunbata. 4etan. Hernani.</p> <p>Pilota</p> <p>Eskuz banaka: Arrasate 18 Alonsotegi 6</p> <p>Paletan: Arrasate 25 Idiazabal 35</p> <p>Hurrengoak:</p> <p>Eskuz banaka: Aretxabaleta - Arrasate. Larunbata.</p> <p>Paletan: Adurtza - Arrasate. Larunbata. 4etan. Gasteiz</p>
--	---	--	---	---

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak

KIT

Ferrerias, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE

Azukrerik gabeko zapore gozoa (eta II)

ELIKAGAIEN INDUSTRIAN ERABILTZEN DIREN BESTE ZENBAIT EDULKORANTE

Ziklamatoa: azukrea (sakarosa) baino askoz gozagoa da eta ez dauka sakarinen amaierako zapore mingotsa.

Aspartamea: hau ere azukrerik gabeko txikleetan agertzen da, eta fenilzetonuria gaixotasuna daukatenentzat baino ez da toxikoa. Gaixo hauek ezin dute aspartamea transformatu eta gorputzean pilatzen zaie, arazo latzak eraginez.

EGUNERO ERABILTZEN DITUGUNAK

- Argaltze dietak egiten dituzten pertsonak dira edulkorante artifizialen kontsumitzaile nagusiak, ez baitute gizentzen.
- Diabetikoek asko erabiltzen dituzte, odelean duten azukre kontzentrazioa altue-



gia izanik, ezin dituztelako azukre arruntak hartu.

• Haurrek ere azukrerik gabeko txikleetan hartzen dituzte txantxarrik ez izaten laguntzen dutelako. Normalean ez da arazorik gertatzen, kantitate haundiak hartu behar dira-eta arriskua egoteko, eta ez dute horresbeste txikle jaten.

Aipatutako edulkorante artifizialak, izenez gain, zenbaki berezi batzuen bidez ere izenda daitezke. Askotan, gainera, etiketetan bertan ikus daitezke.

E-420 :	Sorbitola
E-421 :	Manitola
E-422 :	Xilitola
H-6864 :	Sakarina
H-6881 :	Ziklamatoa

Zenbaki hauen esanahia hurrengo batean azalduko dugu sakonago.

MAIDER NUIN ETA J. SANCHEZ

FORMAKUNTZA IKASTAROAK



- **MULTIMEDIAREN APLIKAZIOAK ENPRESAN:**
 - Otsailak 17, 18, 24 eta 25, martxoak 3 eta 4, apirilak 7, 8, 21 eta 22.
 - Ostiralak eta larunbatak. 45 ordu.
 - Matrikulak otsailaren 8tik 15era.
- **KOMUNIKAZIO ENPRESARIALA ETA INSTITUZIONALA:**
 - Martxoak 10, 11, 17, 18, 24, 25 eta 31, eta apirilak 1.
 - Ostiralak eta larunbatak. 45 ordu.
 - Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- **ENPRESA ETA INSTITUZIOETAKO BOZERAMAILEEN PRESTAKUNTZA:**
 - Maiatzak 6 eta 13. Larunbatak. 16.00etan.
 - Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- **CD-ROM-EN APLIKAZIOAK ETA ESPLORAZIOA ENPRESAN**
 - Maiatzak 12, 19 eta 20. ostiralak eta larunbatak. 15 ordu.
 - Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- **KOMUNIKAZIOA ETA OSASUN SUSTAPENA:**
 - Ekainak 2, 3, 9, 10, 16, 17, 23, eta 24. ostiralak eta larunbatak. 48 ordu.
 - Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.

N

A

L

I

Z


E

H



- **3D-KO DISEINUA AUTOCAD 13REKIN PC-REN GAINEAN**
 - Martxoaren 8tik maiatzaren 12ra, astegunero. 120 ordu.
 - Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- **3D-KO ANIMAZIOA 3D-KO STUDIOREKIN PC-REN GAINEAN:**
 - Maiatzaren 15etik uztailearen 7ra, astegunero. 120 ordu.
 - Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- **AUTOEDIZIOA PAGE MAKER 5.0-REKIN PC-REN GAINEAN:**
 - Maiatzaren 29tik uztailearen 7ra, astegunero. 90 ordu.
 - Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.

INFORMAZIO GEHIAGO ETA PROGRAMAK NAHI IZANEZ GERO, ESKATU IKASTAROEN KATALOGOA TELEFONO HAUTAN: 71 50 89 ETA 71 46 37



LABURRAK

Bertso-Eskola

11-14 urte bitartean dau deneska-mutilentzat bertso-eskola antolatu du AED elkarteak. Ikastaroaren hasiera zehazteke dagoen arren, ostiral arratsaldero bilduko da lan-taldea, ikasturte amaiera arte. Bailerako hainbat bertso-eskola arrakastatsuak direla-eta, esperientzia horri ekitea pentsatu du AEDk Arrasaten. Horretarako gogorik baduzu, beraz, badakizu nora jo dezakezun. Bertso-eskolak Patxi Goikoleak emango ditu.

Argibide gehiagorako AEDra zuzendu eta Esterrekin jarri harremanetan edo bestela, 77 12 28 telefonora hots egin.

Hitzaldia

Arrasateko Elizak hitzaldia antolatu du datorren ostegunerako, otsailak 16. Jorratuko den gaia "Elizen arteko Biblia" izango da eta Dionisio Amundarain, Ramon Irizar eta Iñaki Mendiguren jardungo dute gaiaren inguruan. Hitzaldia Monterron jauregian izango da arratsaldeko 7etan.

ZER NAHIAGO?

Nerea Lasagabaster
Udaletxeko telefonista

- Zenbat bider hartzen duzu telefonoa egunean? Ehun eta berrogeita hamar bat bider.
- Zer moduzko lana da? Oso estresantea batzuetan eta oso lasaia beste batzutan.
- Inoiz bota dizute lorarik telefonoz? Ez.
- Egun txarra duzunean, igerrri egiten zaizu telefonoz? Ez.
- Maitasun aitortpenak, telefonoz ala eskutitzez? Eskutitzez.
- Lo asko egiten duzu? Ez, zazpi bat ordu.
- Udaletxean nori deitzen diote gehien? Hirigintzakoei.
- Ikusten duzu Goenkale? Ez.
- Noiz egin zenuen negar azkenenکو aldiz? Pelikularen batekin, baina ez dakit noiz.
- Arrasaten mutil goapo asko dago? Bai.
- Nora joango zara Aste Santuetan? Ez dut pentsatu.
- Zure gorputzeko zein ataletan egingo zenuke zirurgia? Gustora nago nire gorputzarekin.
- Zein pertsonaiari ez zenioke deirik pasatuko? Maria Teresa Camposi.
- Zein pertsonaia famaturekin gustatuko litzaizuke telefonoz hitzegitea? Richard Gere-kin.
- Haratuzte egunerako jantzia prestatu duzu? Ez dut moztorrorik jantziko.
- Telefono erotikoa ideia ona iruditzen zaizu? Bai, zergatik ez.
- "Egunon, Arrasateko Udala" horrenbeste bider esan eta gero, etxeko telefonoan ez duzu gauza bera esaten? Batzuetan bai.
- Barruko erropa, zein koloretakoa? Txuria.
- REM taldearen kontzertura joateko asmorik? Ez.
- Maiteminduta zaude? Bai.
- Belarritako luzeak edo perlazkoak? Perlazkoak.
- Askotan erabiltzen duzun esaldi bat? "Hazia erein eta usta jasoko duzu".
- Ikusi duzun azken pelikula? "Acoso".
- Zein puntuazio emango zenioke? Sei bat.

**Hementxe
beteko duzu
zure betiko
ametsa**

Karmele
Bitxitegia

Iturriotz, 33 • ARRASATE • ☎ 77 07 41

Gotzon Arzelus

Bide zaharrak berreskuratzen

Arrasaten izan diren bide zaharrak ikertzen ari da 21 urteko bergarar hau. Arrasatearra izan ez arren, ama bertakoa duela-eta, nahikoa ondo ezagutzen zuen Gotzonen herria eta horregatik animatu zen lanari oratzen. Ikertzen hasi denetik, berriz, edozein herritarrek baino hobeto ezagutzen ditu Arrasateko bazterrak.

– Zer dela eta ikerketa hau egiten?

– Iaz amaitu nuen Turismo karrera Donostian. Orduan, Arrasateko Udalak ikerketa hau egiteko deialdia egin zuen, aurkeztu, eta neuri eman zidaten lana egiteko ardura. Sei hilabeteko kontratua dut hori egiteko, beraz maiatzaren erdialderako bukatuta egon behar du.

– Zer da ikertuko duzuna?

– Arrasaten izan diren bide zaharrak ikertuko ditut. Ondoren, ibilbideak antolatuz edo mapetan kokatuz, jendeari bide horien ezagutza ematea izango da helburua.

– Hori lortzeko zein lan tresna erabiltzen duzu?

– Udal artxiboko dokumentuetan begiratu dut ea zein bide aipatzen diren ikusteko. Horrez gain, J.L. Ormaetxeak, Txipik, toponimiari buruz egindako lanak asko



lagundu dit, izen batzuk hortik atera ditut. Bestalde, base-ritarrei ere galdetzen diet, baina mapa eskuan daukala, baserri inguruan dabilen mutil gazte bat ikusten dutenean eta gainera Udaletxetik datorena... terrenoren bat kenduko diedala pentsatzen dute eta batzuetan kostatzen zaie konfidantza hartzea. Hala ere, zertara noan azaldu eta gero, gehienek lagundu egiten didate.

– Egiten duzu ibilaldirik?

– Bai, eguraldi ona egiten duenean kanpora irteten dut

eta bideak kokatzen ditut planoan. Horrelakoetan makina bat kilometro egiten dut egunean.

– Zertarako egiten zituzten bideak lehen?

– Lehen ere beharrak bultzaturik egiten ziren bideak. Batetik, baserrian ekoizten zena astoz edo gurdiz herrira jeisteko. Bestetik, bazeuden kutsu erlijiosoa zuten bideak, lanerako bideak eta beste gauza batzuetarako bideak. Bideak, izan ere, bereiztu egiten ziren lehen. Emakume batek umea iza-

ten bazuen, bide berezitik eramaten zuen umea bataiatzera. Ezkontza bat izaten bazen ere, hortik pasatzen ziren; eta hildakoen prozesioak ere bide horretatik egiten ziren. Esatebaterako, Ikutixo baserri ostean prozesioak egiteko erabiltzen zuten bide bat dago.

– Beraz, bide batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak izaten ziren.

– Gaur egun errepideak direnak lehen ere biderik garrantzitsuenak ziren, hau da, Aretxabaletara, Kanpazarrera, Bergarara edo Aramaiora doazenak. Bide horiek herriak komunikatzen zituzten. Gero auzoak batzen zituztenak zeuden, Udala-Miatzerreka, Udala-Gargartza.

– Bideak ikertu ahala beste gorabehera batzuk ere agertuko dira, ezta?

– Bideen inguruko kontu interesgarriak ere jaso egingo ditut, adibidez, kobazuloren bat edo iturriren bat badago. Horrez gain, prozesioak zelan egiten ziren eta bideekin lotuta dauden kondaira eta anekdotak ere jaso egingo ditut.

– Beste inon egin da horrelako ikerketarik?

– Santiagoko bidea aztertu izan da, baina ez dut uste bestelako herri edo hirietako bideak ikertu direnik.

“Lanerako bideak eta beste gauza batzuetarako bideak bereizten ziren lehen”



BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

**Durana, 12
ARETXABALETA**

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

ATBk bost urte bete ditu

Datorren astelehenean, otsailak 13, bost urte beteko dira ATB lehen aldiz aireratu zela. Denbora azkar pasa da eta bertan lan egin edo kolaboratu duten lagunen zerrenda amaigabea da. Dakizue-nez, ATB, ARRASATE PRESS bezala, AEDren inguruan sortu zen eta aldizkarian kolaboratzen zuten pertsonen eta kanpotik etorritako lagunen inplikazioa eta lana erabakiorrak izan ziren.

Bost urte hauetan egin diren programa guztiak gogoratzen hasiko bagina, zerrenda luzea osatuko genuke: "Saltsa-maltsa", "Zenbat buru, hainbat aburu", "Musikantoi", "Bapirulauke", "Erretratua", "Tertulixan", "Larrugorritan", "Txatxaran", "Monterock", "ATBpub", "Mondrasport", "Mondragol", "Berriak", "Astebete", "Alkatearekin berbetan" ... adibide batzuk baino ez dira. Eta ATBn programa bat aurkeztu edota muxutruke kolaboratu duten lagunak ere kontaezinak dira.

ATBtik pasatu diren kamarak eta teknikoak ere, ez dira gutxi izan, eta guzti horien lanari esker, gaur eguneko ATBk, duela bost urtekoaren aldean, asko irabazi du.

INKESTEN EMAITZAK

Duela urtebete ikerketa sakona egin zuen ARKOK ATBren audientzia jakiteko. Ikerketa horren helburuak, ATBko emisio orduen barruan zein den telebista



ATBko bost urteotan hainbat lagun, teknikari eta kolaboratzaile izan dira.

aurrean jende gehien dagoen momentua, beste telebista kateak programa ezberdinak emititzen dauden bitartean zenbat jende dagoen ATB ikusten, eta kateak duten audientzia jakitea izan zen. Informazio hori lortzeko, telefono bitartezko elkarrizketa edo inkesta egin zen.

Lehenik eta behin, 8etatik 8.30etara bitartean "Berriak" programa emititzen ari zela jendea zein kataia ikusten zegoen jakin nahi izan genuen: %23a TVE1 ikusten zegoen; %18a Tele5 eta hirugarren postuan ATB zegoen %13'85eko audientziarekin. Ordu horretan honako programak ikusten ari zen inkestaturako jendea: TVE Iean, "A las ocho con Raffaella" eta

Tele5 kataian, "Su media naranja".

Informatiboaren ordutegia aldatuz, beste inkesta bat egin zen. 8.30etatik 9etara, "Berriak" programaren lehengo errepikapena emititzen ari zen bitartean, deitu zen etxeetatik %74an zegoen telebista piztuta. Telebista piztuta zegoen etxeetan zein katea ari ziren ikusten galdetu zen eta aurreko inkestako emaitza ia berberak irten ziren: %29a TVE1 ari zen ikusten; %14a Tele5 eta %12a, ATB. Momentu horretan telebista kate hauek emititzen ari ziren programak ziren: TVE Iean, "A las ocho con Raffaella" eta Tele5 kataian, "Las noticias".

9etatik 9.30etara, "Berriak" programaren bigarren errepikapena emititzen ari zen bitartean, deitu zen etxe guztietatik %81ak zuen telebista piztuta eta ordu horretan, ATBren audientziaren portzentaia beste lau kataiena baino eskaxagoa izan zen: ATBren aurretik, TVE1, ETB2, ETB1 eta Tele5 zeuden. Ordu horretan katea hauek emititzen ari ziren programak, "Telediario", "Teleberri", "Gezurra Nagusi" lehiaketa, "Algara", futbol programa eta "Txoko latex" umore saioa ziren.


Hauek izan ziren, beraz, ikerketa horretan jakin ziren emaitzak. Balorazioa, ATB herri-telebista dela kontutan izanik, oso ona izan zen.

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

**Elektroinjekzio
Zerbitzua**



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



L

errajeraren etxeak deitzen ziren, lantegi horren bertako langileentzat Musakolan egin zituenak. Orain ere Sailuente Plaza du izena, eta hasieran

San Lorenzo ziren. San Lorentzo egunez eman zizkietan giltzak etxe hauekara joan ziren langileei, Zerrajeran jai-eguna izaten zen eta.

1956ko abuztua zen eta **Joxepi Madariaga, M^o Angeles Ibabe** eta **Emili Madariaga** Elorrixora joan ziren egunpasa edo, udako eguraldia aprobeztatzuz. Orain kaminoa dagoen lekuraino, Gipuzkoako etorbideraino, etxe barik zegoela gogoratzen dute Madariaga ahizpek. Argazkiaren ezkerrekaldean

futbol-zelaia ere ageri da. Auzoan Casa Hierro eta orain Jubilatuen etxea dena besterik ez zeuden eta gainerako guztia ortua eta baserria zen: Antoña Etxebarri, Antoña, Aldekoa, Mojategi.

Erretratuan ageri den etxean ere aldaketa asko izan da harrezkero. Bertako bizilagunak errentan zeuden hasiera, eta 75 pezeta ordaintzen zizkioten Zerrajerari hilean. Etxearen konponketak eta gainerako denak Zerrajerako langileek egiten zituz-

ten. Gerora lantegiak saldu egin zituen etxeak.

Albo banatako arkuak ere desagertu egin ziren denborarekin, hezetasun arazoak sortzen zirela eta. Barruko plaza ere asko aldatu da: barruko lorategia eta plazaren itxura, eskilarak eta batez ere, erdi-erdian zegoen farola. Auzoko askok pena du orain hura galdu izana.

Argazki honek badu beste berezitasun bat ere: abuztua izan arren, tximinian kea ageri da.

Arreta
haundiko
sukaldea


UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra

Garagartza auzoa

Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE



VITORIA - GASTEIZ

**ZURETZAT SORTUTAKO
GAURREGUNGO ESTILOA**

- Altzariak
- Dekorazioa
- Baxerak
- Kristaleria
- Opari-gaiak
- Arte Garaikidea

EZ DUZU SINISTUKO

- Zure lehen etxea jartzea erabaki baduzu, ezkontza-zerrenda antolatuko dizugu, diru-baldintza paregabetan.
- Zure etxea erosoago egin nahi baduzu, bisita gaitzazu. Ideia asko emango dizugu.

ORDAINKETA :
18 hilabetera arte interes barik

El Zaguán de los Detalles

Correria kalea, 36-38-40 (Virgen Blanca Plazatik 100 metrotara) Vitoria-Gasteiz - Tfnoak: (945) 28 86 09/28 78 82

• ESAERA ZAHARRA •

*Urdaia eta ardoa,
urtekoa; adizkidea
urtetakoa.*


OIHENARTEK
(1592- 1675) jaso.

• JEROGLIFIKOA •



Nola lapurtu zieten dirua?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Arrasateko saskibalo taldeko amerikarra. 6. Joan aditzaren erroa. 8. Eginahal. 10. Koordinadora Abertzale Sozialista. 11. Heriotzaren jainkosa indiarra. 12. Jatorrizko. 14. Holandako ibilgailuetan. 15. (Ald.) Errota. 16. Hondar, hondoan geratzen dena. 19. Ikusten ez duen pertsona. 20. Seme-alabak dituen emakumezkoa.

Bertikalak 1. Era sakonez. 2. Ch. Chaplinnek sortutako pertsonaia. 3. Basamortuko berdegunea. 4. Talioa. 5. Mexikoko edari alkoholduna. 6. (Ald.) Prezioa. 7. Gai tintatzaile urdina. 9. Seriotasun, funts. 13. Gerra. 17. (Ald.) Eztainua. 18. Musika-eskalako 6. nota.

• HOROSKOPOA •

Aries Hilabete honetan ospakizun asko izango duzu.

Taurus Adarjotzea kirol bat izango balitz, zu txapelduna izango zinateke.

Gemini Eskandaluak ematea gustatzen zaizula iruditzen zait.

Cancer Zer dela eta hain haserre? Jenio biziegia duzu.

Leo Beharpenetan zerbait erosi behar-ko zenuke. Erropa gutxi duzu.

Virgo Txutxumutxu larregi kontatzen duzu eta hortik datorkizu fama hori.

Libra Eskumako eskua ezkerrekoa baino luzeagoa duzu. Bazenekien?

Scorpio Sekulako bixamonak izaten dituzu. Hori marka!


Sagitarium Rambo baino indartsuagoa zara. Gimnasia joaten zara, ezta?

Capricorn Zure ondokoari kasu gehiago egin behar diozu. Alboratuta daukazu.

Aquarius Badaezpada ere gaur aterkia atera.

Piscis Beharbada jai egunen bat izango duzu aste honetan.

HITZALDIA



Jose Mari Zeberio

Gaia: DATOZEN LAU URTEOI BEGIRA HIZKUNTZ POLITIKARAKO IDAZKARITZAK DITUEN HELBURUAK ETA EGITASMOAK

- Hizkuntz perfilak.
- Araban, zer eta nola.
- Herri ekimenarekiko elkarlana.

Hizlaria: JOSE MARI ZEBERIO

Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia. EUSKO JAURLARITZA


Non: Monterron Jauregian.

Noiz: Otsailaren 14ean.
Arratsaldeko 7etan.

Antolatzailea:




TELEBISTAREN TXOKOA



Zorionak ATB!

Arrasate Telebistak bost urte beteko ditu datorren astelehenean. Pentsatuko duzunez, bost urteotan jende pila bat pasa da telebistatik eta airera atera diren programak ere ez dira gu-txi izan. Gogoratzen dituzu "Medikua Etxean", "Bapirulauke", "Larrugoritan", "Txaxtaran", "Musikantoi" edo eta "Erretratua" programak? Eta Koldo Rodriguez, Jose Ramon Elorza, Bururi, Gerardo edota Begoña Zubia? ATBn programa bat edo beste aurkeztu duten lagun bazu-zen izenak dira horiek, baina zerrenda askoz luzeagoa da. Urte guzti hauek gogoratu, sekulako programa prestatu dizugu. Ziur zuri ere aspaldiko denborak etorriko zaizkizula gogora astelehe-neko programa ikusten duzunean! Gainera, Anne Igarbururekin hitzegiteko aukera ere izango dugu. Mondrasport saioaren ondoren, "ATB: Bost urte" programarekin primeran pasatuko duzu!

KOMIKIA



PROGRAMAZIOA



12 Igandea

21.30etan
Mondragol. Itxaro
Zubillagak aurkeztua.

13 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
"ATB: bost urte"
programa berezia.

14 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

15 Astezkena

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Pareak Jokuan. Gaia:
Maltzaga-Urbina

16 Osteguna

13.30tan
Pareak Jokuan (errep.)
20.30etan
Berriak
21.30etan
"Trebelanak" programa
berria.

17 Ostirala

13.30etan
"Trebelanak" (errep.)
19.15etan
Marrazki Bizidunak
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Marrazki Bizidunak

SOLUZIOAK

Ez dakite esaten.

Joroffitkoa:

18. La.

Anil. 9. Ganora. 13. Gudu. 17. Sn.

3. Oasis. 4. Tl. 5. Tekla. 6. Ballo. 7.


Bertakak: 1. Sakonki. 2. Charlot.

19. Iisu. 20. Ama.

ginal. 14. NL. 15. Bolu. 16. Kondar.

Egihal. 10. KAS. 11. Kall. 12. Ot-

Horizontalak: 1. Scott. 6. Oa. 8.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Etxebizitzak

- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Donostian etxebizitza baten bila nabil.** Zure etxean toki bat badaukazu, deitu 79 77 02 tfnora. Harremanetarako, Santirekin.
- **Etxebizitza salgai Errebuelta kalea, 8** 6-Behea. Tfnoa: 79 41 68.
- **Etxebizitza bat alokatzen dugu Biteri etorbidean.** Tfnoa: 77 00 80.
- **Etxebizitza erosi nahi nuke** 7 eta 9 miloi pta bitartekoa. Harremanetarako dei egin 79 37 68 tfnora.
- **Etxebizitza alokatzen da.** Maixu Guridi, 8 behea. San Andres. Interesatuok dei egin 71 48 27 tfnora. (gaueko 8etatik aurrera).
- **Apartamendu berriua salgai Erguinen.** Logela 1, 50m². 8.000.000 pta. Deitu gaue-tan 79 22 12 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Maalako Arrabala, 19.** zenbakian. Tfnoa: 79 78 65.
- **Nesken etxe batean logela alokatzen da.** Tfnoa: 81 22 06. Saioa.

Lana

- **Taberna alokagai** atenditu ezin dugulako. Interesatuok dei egin 79 23 81 tfnora, arratsaldez.
- **Esperientziadun neska arduratsua eskaintzen da** edozein motatako dendatan saltzaille lanak egiteko. Umeak zaindu eta etxeko lanak egin ere egingo litzuzke. Tfnoa: 79 73 06.
- **Esperientziadun neska eskaintzen da** umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 96 10.

- **Laguntzaile gisa egingo luke lan** etxebizitzetan, tabernetan, atarietan, kontsultategietan,... Tfnoa: 79 96 10.
- **Neska, umeak zaindu,** etxeko lanak egin edo lokalen garbitasun lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 37 68.
- **Klase partikularrik ematen dira,** UBI eta asig-natura batzuk (Matematika, fisika, kimika, informatika,...) euskaraz eta erdaraz. Talde txikiak. Tfnoa: 79 56 82 eta 79 71 89.
- **Gaisoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 88 40.
- **Aizu, neska.** Denda batean lan egin nahi baduzu, bidali zure datuak 259 posta kutxatilara (Arrasate).
- **Umeak edo adineko pertsonak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 23 54.
- **Esperientziadun emakumea,** prest garbitasun lanak eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 15 19. Informeak eskuragarri.
- **Neska esperientziaduna umeak zaintzeko** eta garbiketarako egiteko prest.
- **Andra bat etxeko lanak egiteko prest.** Orduka Tfnoa: 77 10 20. Nati.

- **SUZUKI LIDO motorra salgai,** 75 zm³koa. Matrikula: VI-3154-M.3 urte ditu. Mailetero eta parabrisarekin. Tfnoa: 79 12 01. Joseba.
- **FORD ESCORT XB3i-a salgai.** (SS-AC). Tfnoa: 71 43 31.
- **Garaje itxia alokatzen da,** Larrea aldean. Tfnoa: 79 69 41. Julia.
- **10 litroko FAGOR kalentadorea salgai,** ia berria. 13.000 pta. **Beogailu japoniarra,** handia eta berria, 35.000 pta. Tfnoa: 77 01 64.
- **FORD FIESTA 1.100 Trip salgai.** SS-AB. Ondo zaindua eta prezio onean. Tfnoa: 76 46 80. Gaez deitu. Anabel.
- **Roneoko etxeetan garajea alokagai.** Tfnoa: 79 36 39.
- **Garajea alokagai Uriburu auzoan.** Tfnoa: 79 90 30
- **RENAULT 4-a salgai. 50.000 pta.** Matrikula: SS-T. Tfnoa: 79 58 82 (astebukaeretan).
- **IBAÑEZ markako gitarra saltzen dut,** funda eta guzti. 30.000 pta. Txema. Tfnoa: 79 13 26.
- **Musika talde baten bila nabil,** lokala konpartitzeke. Txema. Tfnoa: 79 13 26.

Salerosketak

- **Lokal komertzial baten bila gabilta,** 200-300m²koa eta erdikaldean. Tfnoa: 79 07 84. 4etatik 8etara.
- **100 litroko FAGOR termoa** saltzen dut prezio onean. Tfnoa: 79 07 73.
- **Bigarren eskuko hozkailu bat behar dut.** Tfnoak: (94) 41 11 666 edozein ordutan edo 79 90 36 astelehenetik ostiralera, 3.30etatik 7.30etara.

Denetarik

- **Urrezko pultsera galdu zitzaidan urtarillaren 21ean** Villa Amparo garajeetatik Aldairainoko bidean. Tfnoak: etxekoa: 79 00 16. lanekoa: 79 05 35. Gurutze.
- **Erloja galdu zait.** Aurkitzen baduzu, deitu 79 51 21 tfnora. Eluskagatik galdetu.
- **Astelehenetan, goizeko 9ak baino lehen Bilbon egon beharra dut,** baina ez daukat autorik. Norbaitek eraman ahal izango banindu, gastuak erdibana egingo genituzke. Tfnoa: 79 76 90. Ana.

Aste Gazte

Bekak

• Udan atzerrian ingeles eta frantses ikastaroak egiteko bekak. Baldintzak: a) iaz beka lortu zutenek, beraz, berriztapena b) aurreko bekario diren ikasleak, beraz, adjudikazio berria. Ikasketa maila hauetan dihardutenei zuzenduak: 3.BBB, LHII... Epea: otsailak 28.

• Kanpo-Arazoetarako Ministeritzak frantsesa edo ingelesa menderatzen duten lizentziatuei zuzendurik, beka hauek deitu ditu, Luxenburgon burutzeko. a) 95-96 ikasturte akademikoan zehar, ikaske-

tak sakontzeko bekak; b) musika, artea, zuzenbidea, ekonomia, zientzia politikoak eta soziologiako ikastaroak uda partean egiteko bekak. Epea: martxoak 24.

Lana

• Durangoko Udalak, lanpostu hauek kaleratu ditu: ekonomista lanpostu bat, biblioneko irakasle lanpostu bat eta azkenik, hiru udaltzain lanpostu. Epea: otsailak 16.

• Donostiako Euskararen Udal Patronatuak, laguntzaile lanpostu bat deitu du. Epea: otsailak 28, gutxigora behera.

• Amorebietako Udalak itzultzaile lanpostu baten deia egin du. Epea: otsailak 15.

Ikastaroak

• Durangoko enplegu eta prestakuntzarako "Sartu" zentruak, "Altzarien berriztapena" ikastaroa antolatuta du langabezia dauden pertsonen zuzendua. Epea: otsailak 24.


• Ikastaro Gazteak: Albo-ka, euskal dantza, argazkigintza, saltsa eta azkenik, jazz. Izen ematea: Gazte bulegoan.

Lehiaketak

• "Antonio Machado" narrazio laburren XIX. saria. Nahi duten idazle guztiek parte har dezekete eta lan bat baino gehiago aurkeztu. Epea: otsailak 17.

"Zorotzat hartzen zuten, eta neska gazteekin beti gertatzen zen legez, dibertitzeko gogoa zuen."

"EL LENGUAJE DE LAS FUENTES" GUSTAVO MARTIN GARZO



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65



**BERE ISILTASUNAK
EMANGO DU ZER ESANIK.**

1995 urteko autoa Espainian



RENAULT

Laguna Diesel




BALBULA ANITZEKO A



Jose Aranzabal



FAGOR 

SUKALDE ALTZARIAK

30

%

Beherapena

Otsailaren **1**etik

Martxoaren **31**ra